

...eta

# Kitto!

889 zkia.  
2014-V-16



## IRAGANA bizi-bizirik

**EUKi**

ARTEKARITZA

Toribio Etxebarria, 1 - behea  
943 20 42 99

**AUTOAREN ASEGURUA**  
*preziorik onenean*





Santa Fe Berria

Grand Santa Fe Berria

## Hyundai Santa Fe Gama Berria Imaginatzen duzuna baino urrutirago

Urrutira heldu zaitetz diseinu eta konfortean, zure imaginazioa Inoiz bidaiaitu ez duen leku horietara iristeko. Zelan? **Santa Fe Berrira** igota. Bide guztietako jabe sentitu zaitetz suspentsio autonibelatzailea, 4 gurpiletako trakzioa eta gidaritzan laguntzeko sistemarekin. Igo ezazu sofistikazioa potentzia gorenera 197 cv-ra arteko diesel motore eraginkorrekin. Guzti hori benetako askatasuna sentitzeko diseinatutako 7 plazako espazioan. Eta esklusibotasuna maila gorenera eraman nahi baduzu, orain **Grand Santa Fe Berria** duzu, maletategi handiagoa, hiru zonaldeko klimatizadorea eta espazio gehiagorekin, lehen mailan bidaiaitzeko. Imaginatzeko zaila, ezta?

28.400€-tik aurrera



## OARSO CAR ELGOIBAR

Olaso Poligonoa, 17. 943 74 14 80

**OIARTZUN**  
Lintzirin polig., 1  
943 49 48 30

**BEASAIN**  
Errepide Nazionala., 1  
943 80 40 54

**IRUN**  
Juan. Labandibar., 43  
943 63 97 69



Gama Hyundai Santa Fe:  
CO2 igorpenak (gr/km):  
159-199. Kontsumo mistoa  
(l/100km): 6,1-7,6.

Gomendatutako PVP-a Penintsula eta Balearetan Santa Fe 75 2.0 CRDI (150CV) 4x2 KLAS-entako (28.400€) hilaren amaierara arte baliagarria. BEZ, garrarioa, merkaturazio zerga, promozio-deskontua, kontzesionarioaren ekarpena, PIVE 5 Plana (Gobernaren PIVE Planaren baldintzen bete beharriari lotuta) eta Familia Ugaria PIVE Plana barne. Hyundai Solución produktuekin Santander Consumer EFC S.A. bidez 12.500€-ko gutxieneko zenbatekoa 36 hilabeteko gutxieneko epean finantzatzen duten bezero partikularrentzat eskaintza aplikagarria. Finantza erabiltzaileen azterketa eta onarpenari lotutako finantzazioa. Eskaintza baliagarria 2014/05/31ra arte. Ikusgai dagoen moduloa: Santa Fe Style (hagunak eskuragarri osagarri moduan soilik). Kontsultatu baldintzak Hyundai kontzesionarioen sare ofizialean.

Bidebarrieta, 5

Tel. 943 201 547

# CAPI

## LASER DEPILAZIOA

30€

- Aurpegia
- Izterondoak
- Besapeak
- Bularra
- Sabelaldea ...

Hanka osoak  
+  
Izterondoak

90€

## Masajeak


OSTEOPATIA  
TEKNIKA METAMORFIKOAK  
MASAJE TERAPEUTIKOAK  
REFLEXOLOGIA  
MASAJEAK: THAI,  
KALIFORNIARRA, BALIKOA



## Gorputz tratamenduak

**TEKNIKAK:** Kabitazioa / Radiofrequentzia / MINCEUR  
Laser lipolitikoa / Presoterapia / Elektroestimulazioa

5 saioko **BONOAK** / Zona bat: 35 euro saioa



LEHEN

ORAIN

LEHEN

ORAIN



lehen

orain



lehen

orain

## Aurpegi tratamenduak

- Mikrodermoabrasioa
- Radiofrequentzia (zimurrak)
- Mantxak (BERRIA)



BETILE LUZAPENAK  
GEL ATZAZKALAK  
IA BETIRAKO  
MANIKURA



## ASTEAN ESANAK

"Ironikoa da gu zelako paternalismoarekin tratatzen gaituzten AEB-ek lilluratuta dituzten politikoei. Jakin beharko lukete AEB-ak direla historiako herrialderik zorpetuena: 17,5 bilioi dolar gaur egun. Aldous Huxleyk orain dela mende erdi zioen moduan: zer gertatuko litzateke halako batean inork krediturik eskatuko ez balu?"

(JUAN AGIRRE, IDAZLE ETA EDITOREA)

"Obesitatearen eraginez, gure umeen bizi itxaropena gurea baino laburragoa da jada. Errazagoa da erlijioa aldatzea elikadura ohiturak aldatzea baino. Administrazioak ere esku hartu beharko luke: Herbehereetan, adibidez, hanburgesen eta halakoen zergak handitu behar dituzte, AEB-etan errazioen tamainak legez kontrolatzen hasi dira pizza zatiak gero eta handiagoak zirelako..."

(IDOIA LABAÏEN, BIOLOGIAN DOKTOREA)

"Zertarako bidaiatzen dugu? Esperientzia bizitzeko, herrialde berri bat ezagutzeko, morenoa hartzeko... eta, azken batean, pribilegiadun zarella ohartzeak sortzen duen sentazio deserosoa ere bizitzeko. Horregatik, oporretako azken egunetan bueltatu nahi izaten dugu: gure pribilegioak dastatzeko eta dastatzen ditugun artean hain pribilegio ez direla sentitzeko"

(KATALIN MINER, KAZETARIA)

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten eusquera

**KALTE.-** Eragindako edo sortutako hondamena, mina. "Oin hurrengo euri haundixak kalte haundixa egin dabe soluetan".

**KALTE EGIN.-** Hondamena eragin, min egin. Gaztelerazko 'perjudicar'. "Arboladi horren keriziak kalte egitten detsa soluari".

**KALTEGARRI.-** Kaltea dakarrena, kalte egiten duena. Gaztelerazko 'perjudicial, nocivo, dañino'. "Diru gehixegi erabiltzia sarritan kaltegarria".

## eskutitzak

### GURE ESKU DAGO TALDEAREN ESKERRAK

Gure eskerrik beroena bidali nahi dizuegu aurreko zapatuan Untzaga plaza bete zenuten ehunka eibartarrei, erabakitze eskubidearen alde ekainaren 8an Durangotik Iruñera egingo den giza katearen entsegua egitera deituta.

Jende uholdea bildu zen Untzagan, jai giroan. Eta osatutako giza kateak Untzagako plaza biak, Calbeton, Zuloagatarraren eta Toribio Etxebarria kaleak zeharkatu zituen. Berrito Untzagara sartzerakoan, hiru bueltako barraskilo erraldoia osatu behar izan genuen plazan denak kabitu ahal izateko!

Ia 800 metro eskuratu dira jada Eibarren, 123 km izango duen giza kateoak. Bergaran dago Eibarri da-

gokion 31. km, eta ekainaren 8an autobusak antolatuko dira Eibartik joan-etorria egiteko. Gainera, Bergaran ekitaldi mordoia izango da egun osoan, eta izango da aukera ere arratsaldean autobusez itzultzeko.

Metroa edota kamiseta eskuratu gabe duenak horretarako aukera izango du zapatu eta domeka honetan Untzaga plazan, 12.00etatik 14.00etara. Eta, baita, astelehenetik ostiralera, 11.00etatik 12.00etara, Kultu tabernan; eta barixakuetan 19.00etatik 20.00etara Deppen.

Euskal Herria nazio bat delako, gure etorkizuna Herri honetako herritarren esku dago. Gure Esku Dago.

**EIBARKO GURE ESKU DAGO**

### TANTANEZ TANTAN, EIBARREN EUSKERAZ BIZI!

Oin dala sei urte, Eibarko euskalgintzak, Gantxillaren ekimenari ekin zetsan, *Tantanez Tantan, Eibarren euskaraz blai* lempian. Bertan parte hartu zenuenoi esker, euskeriaren olatua Urkuzutik Untzagaraiño eruatia lortu genduan. Eibartarrok sarri erakutsi dogu euskeraz bizitzeko dakagun gogua, baiña halanda be, gure herrixa euskalduntzeko badogu oindiok zer egiña. Hori dala-eta, batu gaittezen danok, euskalgintza, ikastetxeak, herriko kirol taldiak, musikariak, artistak, dendarixak, ume, gazte, guraso, heldu, nagusi... eta egin deigun bidia! Aurten be, maiatzaren 31n, Gantxi-

llarekin eta tantanez tantan, euskeraz bizi nahi dogula aldarrikatu deigun lau haizetara!

Horretarako, eta aurtengo ekitaldixaren berri izateko, maiatzaren 21ian, eguaztena, Kulturalian arratsaldeko 19.30etan egingo dogun aurkezpena gonbidatu nahi zaittugu. Bertan zihez tuko dogu talde bakotxa nun egongo dan ibilbidian.

Horrekin batera, maiatzaren 31n, euskeraren aldeko olatuan parte hartzera be gonbidau nahi zaittugu, kalera tu deigun berriro be euskeraz bizitzeko dakagun gogua!

**EIBARKO EUSKALGINTZA**



Euskara Elkarteak

**ARGITARATZAILEREA:** ...eta kito! Euskara Elkarteak. **HELBIDEA:** Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar

**TELEFONOAK:** 943 20 67 76 / 943 20 09 18. **FAXA:** 943 20 28 72.

**Astekararen E-MAILak:** [erredakzioa@etakitto.com](mailto:erredakzioa@etakitto.com) / [komunikabideak@etakitto.com](mailto:komunikabideak@etakitto.com) /

[publizitatea@etakitto.com](mailto:publizitatea@etakitto.com) **Elkartearen E-MAILak:** [elkartea@etakitto.com](mailto:elkartea@etakitto.com) / [normalizazioa@etakitto.com](mailto:normalizazioa@etakitto.com)

**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:** Itziar Albizu, Maider Aranberri, Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez,

Koldo Mitxelena. **ADMINISTRAZIOA:** Marisol Uriarte. **KOORDINATZAILEREA:** Koldo Mitxelena.

**ERREDAKZIO-BURUA:** Silbia Hernandez. **DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** Jose Luis Gorostegi.

**ARGAZKI ARLOA:** Leire Iturbe eta S. Hernandez. **HIZKUNTZA ARDURA:** Juan Andres Argoitia eta Maider Aranberri.

**PUBLIZITATEA:** Itziar Albizu eta Belen Ulazia. **Tfnoa:** 943 20 67 76. **AZALEKO ARGAZKIA:** I. Ojanguren Fondoa

**BANAKETA-ARDUARDUNA:** Ainhua Luz. **TIRADA:** 8.100 ale. **INPRIMATEGIA:** GERTU koop. (Oñati).

**COPYRIGHT-A:** ...eta kito! **LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92. **ISSN:** 1132 - 1679

("...eta kito!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta irizien erantzunkizunik)



**EIBARKO  
UDALA**



**GIPUZKOAKO  
FORU  
ALDUNDIA**



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA SAILA  
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO  
SAILBURUORDETZA)**

*Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzako Kultur Sailak diruz lagundutako aldizkaria*

## Giza-kataiaren entsegu jendetsua

Jende mordua alkartu zan aurreko asteburuan, zapatu arratsaldian Gure Esku Dagok deittuta Untzagan jai-giruan egindako giza-kataiaren entseguan parte-hartze-ko. Jendiak bata bestiarri eskutik oratuta osatutako kataiak Untzagako plaza bixak, Calbeton, Zuloagararren eta Toribio Etxebarria kaliak ziherkatu zittuan eta, biddian, batetik eta bestera jendia batzen juan zanez, Untzagara sartzeraz juan ziranian, jendiak osatutako kataia kiribiltzen ibilli bihar izan ziran danendako tokixa egitteko. Ekaiñaren 8xan osatuko dan 123 kilometroko giza-kataian, Eibarri Bergara inguruan daguan 31. kilometrua betetzia tokau jako eta oindiok metrua erosi ez dabenak asteburuan bertan eukiko dau horretarako aukeria, zapatuan eta domekan 12.00xetatik 14.00etara Untzagan saltzen egongo dira-eta. Horrekin batera, kamisetak eta bestelakuak be salgai egon-



Untzagan jai giruan ibilli ziran bildutako adin guztietakuak. LEIRE ITURBE

go dirala iragarri dabe. Astebarruan, bestalde, oiñ arteko martxiari jarraituko detse: astelehenetik barixakura Kultu tabernan salduko dabe, 11.00etatik 12.00xetara eta barixaku arratsaldetan, 19.00etatik 20.00etara Deporren be erosi leike.

### Museoen eguna ospatzen lagundu behar diguzu

Museoek, bisitari, belaunaldi eta kultura desberdinen arteko loturak sortzeko balio dutela gogorarazten digu egun honek.

Konta jezaguzu zein lanbide zuten zure aitite edo amamak. Bidalai argazki bat, egiten zutenan buruzko hitz batzuk, askotan errepikatzen zuen esaldi hura, ... irudikatuko duen edozer eta maiatzaren 18tik aurrera (ate irekien eguna) museooko erakusketa iraunkorrean btertatuko dugu zuk bidalitakoa. Historia ezagutu eta partekatzeraz gonbidatuta zaudet!

## Museoen eguna ospatuko da domekan

Maiatzaren 18xan mundu mailan ospatzen da Museoen Eguna eta Eibarren be, horren aitzakixarekin, Eibarko Museooko arduradunak ekitaldi berezixak preparau dittue domekarako. Aurten, egunaren harira zabaldu nahi daben mezua "Museuetako bildumak sortzen dittuen loturak" da, hain zuzen be museoak, gauzak erakusteko tokixak ez eze, bisitan juaten diranen artian loturak sortzeko tokixak be badirala gogorarazteko. Horregaittik oin dala egun gitxira arte umiak euren aitzitxa-amamen lanbidien inguruan bialdutakuak batzen ibilli dira eta domekatik aurrera, datozen bi hillietan, museuan ikusgai ipiñiko dittue. Horrekin batera, urtero lez, domekan bisitan doiazeneri ez detse ezer kobrauko.

## Berreibar eta Ekinguneren arteko saria handitzen

Gaurko dake Ekingunekuak hitzordua ipiñitta Berreibarrek Bittor Sarrasketa 7xan dakan Bektokixa lokalian. Ekintzailliak arratsaldeko 19.00-etan izango dabe ongi-etorrixa, bertara doiazeneri harrera egiñ eta dokumentaziñua banatuta. Jarraixan dinamika ipiñiko dira martxan: txokuak (industria, merkataritza, ekintzailliak), azokia eta Speaker Corner-a. 21.00-

etan dastatzeko momentua helduko da, hori aprobetxatuta hartuemonak sortzen jarraitzeko giro lasai eta atsegiñian. Eta 22.00etan amaittuko dabe ekitaldixarekin. Aurretik be egin daben moduan, Ekingunek eskualdeko ekintzailliak, enpresariuak, profesionalak eta jakinguria dakenak alkartzeko topagunia izaten jarraituko dau.



## UCASeko erakustaldixa Arraten domekan

Eibarko UCAS erreskate taldiak entrenamendua egingo dau domeka goizian Arrateko zelaixan. Erakustaldi hori 11.00etan hasiko da eta arratsaldeko 15.00ak arte iraungo dau. Txakurrekin jarduten daben UCAS taldiak holako prestaketaz baliatzen da gero istripuetan eta halakuetan bihar da moduan erantzuteko



## Bankuak 870.000 euro Imesari bueltatzia erabagi dau epailliak

Martitzen goizian Miguel de los Toyosek eta Iñaki Arriolak alkarrekin emondako prentsaurrekuan aditzera emon ebenez, Imesa udal inbiliarixak Banco Santanderri "swaps" izeneko finantza-produktuak erosteko kontratuak balixo barik lagatzia erabagi dabe auzi horren arduria dakan Donostiako epaitegixan eta, sententzian jaso dabenez, bankuak 870.000 euro inguru bueltatu biharko detsaz Imesari. Esplikau ebenaren arabera, epailliak produktuen salmentarako erabili ziran kontratuetan akatsak antzeman dittu eta horregaittik erabagi dau bankuak Imesari aittarutako diru hori bueltatu biharko detsala. Horrekin batera, produktuak erosteko orduan, 2004tik 2008ra Imesako gerentia zanak zer erosten eban argi ez zekala-eta, Imesako zuzendaritza batzordiarri operaziñuaren barri ez emoteko kontuari ez detse aparteko garrantzirik emoten.



Arriola eta De los Toyos martitzeneko agerraldixan. SILBIA H.



EH Bildun bestelako irakorketia egitten dabe. SILBIA H.

Eibarko EH Bilduko ordezkariak sententzia beraren inguruan egitten daben irakorketia oso bestelakua da eta sententzia Imesaren aldekoa izatiak eta, beraz, bankuak bueltatu biharko 870.000 euroak arka publikuendako mesedegarrixak izango dirala onartuta be, ez dabe ondo ikusten swap-ak erosterakuan txarto egindakuen gaineko ardurarik Imesa-ko iñori ez eskatzia eta epailliak baliogabetu barik segitzen daben 9. swap-aren inguruko errekursua sartziaren alde da guazela adierazi eben eguaztenian.

## autuan

### BIDEGORRIXAREN ALDE

Debabarreneko Esperientzia Eskolako 10. promozioño ikasliak (2013/2014 ikasturtekuak), Eibar-Ermua-Elgoibar batzeko bidegorrixaren premiñia egon badaguala ikusitta, horren aldeko ekimenari laguntasuna emotia erabagi dabe eta herritarren artian bidegorrixa egittiaren aldeko siñadurak batzen hasi dira, Bizkaia eta Gipuzkoako diputaziñuetan entregatzeko asmuarekin. Horren barri emoteko bialdu daben idatzixan diñuenez, "jende mordua ibiltzen da egunero herri batetik bestera eta, gaiñera, herrixen arteko distantziak laburrak diranez, askok bidegorrixa erabiliko leukiela pentsatzen dogu".

### AUTODEFENTSA

Emakumiendako autodefentsa ikastarua egingo da ekaiñaren 7xan (10.00etatik 13.30xetara eta 16.00etatik 20.30xetara) eta 8xan (10.00etatik 13.30xetara). Klasiak Isabel Bernalek emongo dittu eta izena emon nahi dabenak maiatzaren 23rako Pegorara jua biharko dau. Preziua 7 eurokoa da Eibarren erroldatuta daguzenendako (10 euro bestierendako).



Funeraria-Ehorztetxe  
**Mugica**

<p><b>EIBAR</b></p>  <p><b>Beilatokia</b> Funeuskadi Eibar: Otaola, 27</p>	<p><b>ELGOIBAR</b></p>  <p><b>Beilatokia:</b> SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p>
<p><b>Bulegoa Eibarko erdialdean</b></p>  <p><b>24 orduko zerbitzu iraunkorra</b></p> <p><b>943 20 19 51</b> <a href="http://www.funeuskadi.com">www.funeuskadi.com</a></p>	
<p>Euskadiko Lehen Ehortze Taldea</p> 	




**Helbidea**  
URKIZU PASEALEKUA, 13  
Orbeako dorreetako  
1. solairua  
☎ 943 12 02 00 Faxa: 943 12 02 04

**CENTRO MEDICO - OSASUNDEGIA**

1 Kardiologia	11 Barne Medikuntza
2 Zirugia	12 Radiologia
3 Dermatologia	13 Urologia
4 Dietetika eta Nutrizioa	14 Traumatologia
5 Anali Klinikoak	15 Koloproktologia
6 Ortodontzia	16 Erizaintza
7 Otorrinolaringologia	17 Zoru pelbikoaren errehabilitazioa
8 Pediatria	18 Foto-depilazio Unitatea
9 Psikiatria	19 Ginekologia (BERRIA)
10 Neurologia	

## asteko 57 datua

nodo ipiñiko dira herrixan argixa neurtzeko, hiru puntutan kokatuta. Erisonoko poligono industrialian ipiñitta dagoz; Ipuruan 15 argi-puntutan kokatuko dira, bolera onduan; eta Jardifieta kalian beste 21 puntutan ipiñiko dira. Holako argi-puntuak Bartzelonan, Dinamarkako Kaldunborg-en eta Eibarren bakarrik egongo dira.



### Zinerako sarrerak

Eibar Merkataritza Gune Irekixaren barruan dagozen tabernetan gaur eta bixar goizian zeozer hartzen dabenen artian Coliseora zinera juateko 600 sarrera duan banatuko ditue. Zine-emanaldixekin arduratzen dan enpresiak, herritarren artian zinirekiko zaletasuna pizteko asmuarekin, asteburuan proiektauko daben "Una noche en el viejo México" ikustera juateko sarrerak oparitu detsaz udalari eta agintarixak ondo ikusi dabe herriko ostalartizan gastua egitten dabenen artian oparitzia.



### Paisajismo-proiektu onenaren billa

Berreibar Ekimen Kulturalak, Adar.abar-ekin alkarlanian, herriko bost toki konkretu apaintzeko Paisajismo Lehiaketia antolatu eban eta, presentau dittuen proiektu guztien artian finalista geratu diran bost proposamenak aurreko bariakuz geroztik kalia ikusgai dagoz, jendiak ikusi eta gehixen gustatzen jakonari botua emoteko aukeria eukitzeko. Botua internet bidez emon leike (berreibarkulturala.wordpress.com helbidian) edo, bestela, bixar Untzagan bozkatzeko aukeria emongo dabe, horretarako ipiñiko daben kutxan botua zuzenian sartuta. Proiek-



Ibarbia ziharrian eta Bittor Sarasketan egindako proiektuak. SILBIA HERNANDEZ

tu finalistak hónek dira: Idurre Iriondok Bista Ederreko parkerako egindakua; M<sup>a</sup> Rosa Alvarez eta Ianire Arostegik Armerixa Eskolaren parian ipiñittakua; Xabier Polledo, Ane Miren Altuna eta Ane Meazak Muzategi-Errebal bittarteko eskilleretan montau dabena; Ana del Hoyok Bidebarrieta kalia, Rialtoko eskillaren aldamenian ikusgai ipiñittakua; eta Ane Sarrionandia eta Vanesa Vallejok Bittor Sarasketako parkiñeko horma apaintzeko erabilli dabena. Jendiaren boto gehixen jasotzen daben proposamenaren egilliari 400 euroko sarixa emongo detse.

### Organikuak batzeko sistema barrixa

Aurreko astian Arcadio Benitez Debabarrena Eskualdeko presidentiak prentsaurrekuan aurreratu eban moduan, gaurtik bertatik hasitta eta datozen



egunotan, hondakiñ organikuak biltzeko kalia dagozen kontenedore marroiak kanbixatzen juango dira, aurrerantzian erabilliko daben bilketasistemiari hobeto egokittutako edukiontzi barrixak euren tokixan ipintzeko. Oiñ arte hondakiñ organikuak batzeko kontenedoriak zabaltzeko derrigorez giltza erabilli bihar zan, baiña hillaen 28tik ez da giltzaren premiñarik egongo, ordurako kale guztietan erabiltzeko moduan egongo diran edukiontzi barrixak erabiltzeko egunotan etxietara

banatzen dabizen txip-dun txartela eruan biharko dogueta. Tapia zabaltzeko txartela sarraillara gerturatzia, besterik ez da egin bihar. Sistema hori erabilli daben tokixetan birziklatze-tasak modu nabarmen gora egin dabela ikusi dabe eta, horregaittik, gurian be hori ezartzera animau dirala azaldu eban Benitezek: "Eibarren 2013. urtian organikuen birziklatze-tasa %29kua zan eta, oso epe laburrian, 2014. urteko lehen hillabetietan porzentajia %39raño igotzia lortu genduan, zaborren-tasaren inguruan hartutako erabagixari esker. Horregaittik, sistema garbi eta eraginkorra martxan ipiñitta, helburutzat dakagun %60-ko birziklatze-tasara laster aillagatzia espero dogu".



## Abontzako Itturrixak auzua girotuko dau hamargarrenez

Hamargarren urtez jarraixan, gaur 18.30xetako txupinazuarekin hasiko dittue Abontzako Itturixak antolatutako jaixak Egigurentarreneko parkian. Jarraixan, "Lore Power" umiendako euskerazko ikuski-zunarekin ekingo detse aur-tengo programiari eta, hori amaittu eta jarraixan, auzokuak eta jaixetara juaten diranak "ikaragarri maitte" daben DJ Xaibor aillegauko da, ume eta nagusixak bere abestixen errit-mora dantzari ipintzeko prest. Horrekin batera, Mahatsondok babestuta ardaudastaketia egingo da eta, pixka bat geruago, patata-tortilla txapelketa-

rako preparatzen dittuenak afalduta agurtuko dabe jaixetako lehen eguna.

**Zapatu goizerako** umiendako prestatu dittuen jolasekin eta buruhandixekin edarto pasatzeko aukeria egongo da eta, txistorra pintxuak janda gosia egitten dabenak bapoz bazkaltzeko aukeria be eukiko dau, azken urtiotako martxari jarraituta aurten be 400 laguneri jaten emoteko paellia egingo dabe-eta. Arratsaldian, bestiak beste, toka eta igel-toka txapelketak jokatu dira eta umiak, barriz, Gorriti eta bere animalixekin primeran ibilliko dira. Eta afaltzeko pa-



Abontzakuak "ikaragarri maitte" daben DJ Xaibor jaixetan izango da beste behiñ. LEIRE ITURBE

rillada edarra egingo dabe, saiheskixa, oillasko izterrak eta hanburgesak erreta. Eta dantzari egin nahi dabenendako berbenia Lisker taldekuak eskinduko dabe, afaldu baiño lehen eta ondoren.

**Eta domeka eguardixan,** 12.00xetan San Pio X.a elizari auzoko hildakuen omenez egingo daben mezarekin eta bertan Goruntz abesbatzak kantauko dittuenekin agurtuko dabe jaixa.

## Olagarro gustuko jaixa Urkizura bueltan

Gaur 19.00etan ekingo detse jaixari Urkizu aldian, As Burgas Galiziako Etxeko jai batzordekuak urtero lez parkian ipiñiko daben tabernia zabaltziakin batera. Barran zeozer eskatzen dabenak, zelan ez, Galiziako produktu tipikuekin disfrutauko dau eta, bestiak beste, "a feira" erara preparatutako olagarrua, enpanadak, gaztaia eta Santiago tartia jateko moduan topauko dittu eta, hórri la-guntzeko, nahi beste Ribeiro eta Albariño ardaudateko au-

keria be eukiko dau. Horrekin batera, Eibarko Galiziako Etxeko Os Galaicos taldekuak kalejiria egingo dabe parkian eta inguruan, gaita-doiñuekin kalia daguazanak jaixarekin bat egittera animatzeko. Eta bixen bittartian, gaiñera, herri-kiror erakustaldixa eskinduko dabe parkian. Herri-kirorak amaittu eta gero, afaltzeko atsedendi laburra egiñ eta jarraixan, goizaldera arte dantzaldixa egingo da parkian, Alto Standing orkestakuen eskutik.



**Zapatuan goizetik hasiko dittue** jaixaren inguruan antolatu dittuen ekitaldixak eta, bestiak beste ume eta helduendako "chave" jaurtiketak eta igel-toka txapelketia jokatu dira. Eta arratsaldian atzera be musikia eta dantza izango dira nagusi, Os Galaicos taldiarekin

eta Rasmia, Donostiko Aragoiko Etxekuekin. Eta illuntze-gabian animatzen diranak atzera be dantzari egitteko aukera paregabia eukiko dabe, Los Trovadores orkestakueri esker.

**Eta domekan Galiziako jaixak Untzagaraño** aillegauko dira, eguardixan Os Galaicos taldekuak Eibarko trikitilari-xeri harrerria plazari egingo detse-eta. Jarraixan, danak alkarrekin Urkizuraino kalejiriari bajauko dira, parkian musikia eta dantzak erakusteko. Galiziako Etxe-

ra bazkaltzera jua baiño lehen, Castelaoren omenez dagan oroitarrixan lora-eskintza egingo dabe eta arratsaldian Los Trovadores taldekuak agurtuko dittue aurten Xose Maria Diaz Castroren omenez antolatu dittuen XXXI. Dia Das Letras Galegas jaixak.



Goizaldera arte dantzari egitteko orkestak ez dira faltako. LEIRE ITURBE

**The Vartools aurten sortu da, baina talde gaztea izan arren urteek ematen duten esperientziarekin jantzita dagoela begibistakoa da. Izan ere, taldea osatzen duten lau eibartarrak aurretik ere musikan jardundakoak dira. Besteak beste, Black Leather, Beer Band, Adunia, Upset, Chronicles, Ekinocio, Must be Coffee eta Los Senserros del Diablo modukoetan ibili eta gero, lau gazteak elkartu eta proiektu berriari ilusioz beteta heldu diote.**

- Nolatan eta zeintzuk sortu duzue The Vartools?

Borja Etxeberria (bateria), Fran Retenaga (gitarra), Mikel Gauger (gitarra eta koroak) eta ni neu (bajua eta ahotsa), lauok osatzen dugu taldea. Gutariko batzuk aurretik ere beste talde batzuetan elkarrekin ibilitakoak gara eta, beraz, elkar ezagutzen genuen. Ikasketak-eta eraginda, batzuk kanpoan egon gara eta, handik bueltan, iazko abenduan Fran, Mikel eta hirurak entsaiatzen hasi ginen, baina taldeak perkusioa behar zuela ikusi eta Borjarengana jo genuen. Horrela jaio zen The Vartools, urtarrilean.

- Nolako musika egiten duzue?

Luzaroan beste batzuen abestien bertsioak jotzen ibili eta gero, gure lehengo estilotik aldendu gara. Moduren batean azaltzeko, rock&roll-etik abiatuta, soinu indartsu eta garbien bila gabiltza. Proiektu berrian rockabilly gogor modukoa jotzen dugu.

- Kantak zuek sortutakoak dira?

Asko eta asko guk idatzitakoak dira, baina lantzean behin bertsioaren bat sartzen dugu, edo beste talde baten abesti batzuk... Hasi berri ga-

ra, baina dagoeneko Ez Doken eta Gaztetxean kontzertuak eman ditugu. Ez Doken jo genituen hamairu abestitik zortzi guk idatzitakoak ziren eta Su Ta Garren "Mari" abestiaren bertsioa ere badugu.

- Bideoklipa ere grabatu duzue, ezta?

Taldea sortu eta segidan Youtuben ikusgai dagoen "Don't touch my alligator" abestiaren bideoa grabatu genuen, telebistan kamararekin beharra egiten duen lagun batetik eta dena zuzendu eta bideoa editatu duen Zoraida Dominguezek lagunduta.

- Eta nolako harrera egin diuzete?

Oso pozik gaude, koadrila-koak esker onekoak dira eta, kontzertuetara etortzen direnez, publiko hori behintzat bermatuta dago. Laster, ekainaren 6an Urkiko jaietan joko dugu eta ezagunen laguntzari esker bagoaz beste kontzertu batzuk lotzen poliki-poliki. Emanaldiekin eta Ez Doken salgai dauzkagun kamisetak salduta diru pixka bat batzea lortzen badugu, uda ostean etxean egindako diskoa grabatzea gustatuko litzaiguke.



Jon Larreategi  
(THE VARTOOLS)

**"Uda ostean diskoa grabatzea gustatuko litzaiguke"**

## ENRIQUE BOLUMBURU GARATE "KETO"

II. URTEURRENA (2012-V-13)

Ez ditugu inoiz ahaztuko izan dituzun ilusioa eta bizipoza.





## Gazteen sormena lantzeko prestakuntza

Euskal Herriko Unibertsitateko SINNERGIAK Social Innovation Centre delakoak, Eibarko udalarekin lankidetzan, langabezian dauden gazteentzako programa berritzailea abiatu du datorren astean, astelehenean. Gazteen artean enplegua bultzatzea da asmoa, beti ere Kultura eta Sormen Industrien eremuan. Ekimenean hemezortzi eta hogeitamar urte bitarteko gazte langabetuek hartuko dute parte, goi eta erdi-mailako ikasketadunak eta, ekimenaren arduradunek aurreratutakoaren arabera, "aipatutako ezaugarri horiekin batera, hazkunde eta garatze gaitasuna duen Kultura eta Sormena industrien eremuan interesatutakoak. Horri lotuta daude, besteak beste, moda, diseinua, publizitatea, arkitektura, ikus-entzunezkoak, arte eszenikoak eta beste hainbat lanbide".

Maiatzean hasi eta ekainera

bitartean, konpetentzien bidetako prestakuntza landuko duen taldeetako batek Eibarraren jardungo du: "Gazteek taldeka egingo dute beharra, Kultura eta Sormen arloko enpresa batek jarriko dien erronka erreala batentzat konponbidea bilatzeko. Horretarako 'Learning by Doing' (ikasi egiten) eta 'Solving Problems' (arazoei konponbidea ematen) jatorrizko ingelesezko terminologiarekin gurera ailegatu diren metodologiak erabiliko dituzte, Berrikuntzen Diseinurako zikloarekin batera". Prozesu osoan zeharkako konpetentzia berritzaileak lantzen joango dira eta, arduradunek azaldu digutenez, "konpetentzia horiek hiru multzotan sailkatuta daude: multzoetako batean oinarrizko konpetentziak daude, bigarren batean konpetentzia teknikoak eta hirugarren multzoan, berriz, ekinzaitzarako konpetentziak".



**Ekimenean 18 eta 30 urte bitarteko gazte langabetuek hartuko dute parte, goi eta erdi mailako ikasketak egindakoei.**

Gure herrian lehenengoz garatuko den programak sei aste iraupena izango du eta, egituratzerako orduan, ikasketarako zein transferentziarako gune modukoa izateko pentsatuta dago. Hau da, prestakuntza prozesuan ikasitakoa praktikan jartzeko aukera sortzea aurreikusi dute arduradunek eta, diotenez, "baliteke programan parte hartzen duten gazte langabetuek Kultura eta Sormen arloko enpresetan, erakunde publikoetan, unibertsitatean zein zentru teknologikoren batean praktikak egiteko aukera suertatzea". Parte hartu nahi duenak hilaren 21era arte izena emateko aukera dauka Lanbiden.

### Sinnergiak

Sinnergiak Gizarte Berrikuntzarako zentro bat da, Euskal Herrian gizarte-berrikuntzako proiektuak eta es-

perientziak garatzeko asmoz pertsonen eta eskualdeko zein nazioarteko erakundeen arteko sinergiak sustatzeko bokazioarekin sortutakoa. Euskal Herriko Unibertsitateak sustatzen du, EUSKAMPUS-Nazioarteko Bikaintasunaren Campus-a izeneko estrategiaren esparruan. Estrategia horren helburu nagusia, nazioartean garrantzia izateaz gain, eragin lokala izango dituen prestakuntza-, ikerketa-, transferentzia- eta berrikuntza-gune bat sortzea da eta, horretarako, hainbat erakunderekin lankidetzan dihardu, gizarte-berrikuntza arloan ikerketa, prestakuntza eta ezagutzaren transferentziarako esperientziak garatzeko asmoz. Gaiaren inguruan gehiago jakin nahi duenak, [www.sinnergiak.org](http://www.sinnergiak.org) helbidera sartuta horren inguruko informazio zabala aurkituko du.



**Parte hartu nahi duenak hilaren 21era arte izena emateko aukera dauka Lanbiden.**

## Asier Serranoren 3 diskoak



**"Ez Esan Inori"**



**"Gerrari bai"**



**"Hoteleko kantuak"**

10 eurotan  
...eta hitto-ko  
bulegoetan

Gaur egunian Arrate eta inguruko mendixak jai-egunetan pasiatzeko toki aproposak begittantzen jakuz eibartar gehixenori, baiña gure aurretik Eibarren bizi izandako aitxitxa-amamak, Arrate, Akondia eta inguruetara begiratzian, gure irudi horrekin zerikusi gitxi dakan bestelako paisajia ikusiko eben seguruenik. Izan be, gure herrixa ingurutzen daben mendixetan frente bixak zazpi hillebetian ixa alkarrekin egon ziran, alde batekuak eta bestekuak, batzuek bestien kontra burrukan, askok diñuenez bereziki gogorak izan ziran situaziño eta peneri ahal izan eben moduan aurre egitten. Gogotik ahaleginduta be, holako zeozer gure etxe aldamenian pasau zala siñestia be kostau egitten jaku sarrittan. Baiña laster horrek danak hobeto ulertzeko aukeria eukiko dogu, udazkenian Arrateko kolonixan interpretaziño zentrua zabalduko dabe-eta.



**Gerran erabillittako uniformiak eta beste material batzuk ikusi ahal izango dira.**

**Artilleruen gorputzeko milizianuak.**  
PASCUAL MARIN FONDOA



## Gerraren interpretaziñorako zentrua Arraten

**A**rrateko aterpetxiak 720 metro karratu dakaz eta, konpontzeko egin dittuen azken biharrak amaituta, beheko pisuan sukaldia, jantokixa, ikastaro eta holakuetarako gela, komunak eta mugikortasun arazuak dittuenendako preparautako gela bat dagoz. Bigarren pisuan begiraliendako logela bi, 48 lagunendako literak dittuen beste bi logela, komunak eta dutxak ipiñi dittue. Eta landa garapenaren dinamizaziñorako gelia sotoan prestatu dabe. Aterpetxia zabaltzen dabenian 40-60 lagunendako tokixa eukiko dabela aurreratu desku Jose Luis Gonzalez "Poxpolo" Kultura teknikarixak. Kolonia batetik basarritaren prestakuntzarako eta landa ingurua biziberritzerako gunia izaten segiduko dau, oiñ arteko moduan. Baiña, horrekin batera, gerrako frentiaren interpretaziñorako zentrua be izango da, gure herrixak gerra sasoia zelan bizi izan eban hobeto ulertzen lagunduko daben baliabidiak eta bestelakuekin preparau daben gune berezixari esker.

Izan be, teknikarixak kontau deskunez, "kolonixaren barruan daguezen geletako bat Gerrako Eibarko Frentiaren Interpretaziño Zentrua izateko bereziki preparau dogu, Bidark Arkitektura etxiaren proiektuari jarraituta gerra sasoiko trintxeren itxuria emonda. Gaiñera, errealidadetik ahalik eta gertuen egoteko asmuarekin, Jesus Gutierrez historialarixaren eta Jose Luis Valenciaga Eibarko bildumagilliaren laguntasuna euki dogu eta, interpretaziño zentrua preparatzen jardun dogun bittartian, bestiak beste, gerra zibillaren inguruan euretako bakotxak onduen ezagutzen dittuan kontuen gaiñeko aholkuak emoten aldamenian euki dittugu, danon artian tokixa ahalik eta modurik egokixenian prestatzeko".

Beste toki askotan egindakuen adibidieri jarraituta, Arratek eta inguruko mendixak jendiarendako erakargarrixak egittuko ezaugarri eta baliabide badittuela pentsatzen dabe: "Gurera bisitan etortzen diranendako Arrate berez intere-

santia bada, oiñ arteko eskintzari aterpetxiak eta bertako interpretaziño zentruari esker sortuko diran aukera barrixak gehitzian, ingurua are erakargarrixagua bihurtuko da nahittaez". Zabalduko daben interpretaziño zentrua gaixaren inguruko interesa pizteko baliagarrixia izango dala pentsatzen dabe eta, behiñ interes hori sortuta, denporiakin Kalamua, Akondia eta inguruan mendi-ibillaldixak antolatzeke asmua dake. Bisita gidatuekin, gaiñera, frente bixak egon ziran tokixak, trintxerak eta gerrako beste arrasto batzuk bertatik bertara ezagutzeko aukera paregabia eskindu leikie eta, horrekin animauta, leikiana da gurera turista gehixago etortzen hastia.

### Geria kontatzeko bideua

Gerra kontuetan benetan jantzitta daguezen Gutierrez eta Valenciagak emondako laguntzarekin batera, beste batzuekin batera alkarlanian be jardun dabela esprikau deskue udalian: "Zentruan bertan proiektatzeko ikus-entzunezkua egin



dabe Badihardugu alkartekuak, bestiak beste Eibarko irudixak eta gerra sasoiaren zuzenian bizi eben hainbat eibartarren leku-kotasunak tartekatuta”.

Zentrura bisitan doiazanak Eibarko gerria zelakua izan zan erakusten daben maketia ikusteko aukeria be eukiko dabe, Arquimaña enpresiak Eibar eta inguruko mendixen eskalazko erreprodukziñua bertan ikusgai ipintzeko bereziki sortu dau-eta. Horri begiratuta, frente bakotxa nun egon zan eta interes haundiko beste hainbat gauza hobeto ulertuko dabe askok eta, edozelan be, egoeriaren irudixa norberaren buruan sor-

tzeko orduan danondako laungarrixa izango da. Eta gaixari lotutako informaziño eta azalpenekin batera, gelan ipiñi dittuen panel eta bitrinetan materixal mordua batu dabe: jendiari erakusteko: uniformiak, karnetak, gerran erabillitako materixal simulatuak, kartelak, banderak...

### Kamioi eta hegazkiñen maketak

Oiñ arte aittatutako guztiekin batera, Eibarko gerran erabilli zittuen ibilgailuen erreprodukziño zihetzak be egongo dira bertan ikusgai: kamioi blindatu baten kopixarekin batera, gerra



*Aterpetxiak, oiñ arteko zerbitzuekin batera, geletako batian gerriari eskindutakuak batzian, jendia erakartzia lortuko dabela uste dabe.*

sasioan gure herriko zerua ziherkatu eben hiru abioi interpretaziño zentruan bertan ikusteko moduan egongo dira: Jun-

kers bonba-hegazkiña, Saboya Marchetti bonba-hegazkiña eta gerran ibillitakuak "txato" gaxtizinarekin ezagutu eben I-15 Polikarpof "kaza" errepublikanua. Kamioiaren zeñ abioien maketak holako kontuetan maixu haundixak diran Francisco eta Bernardo Perez Guenaga anaixak egin dittue, benetakuen irudixeri jarraituta.

Edozelan be, Arrateko aterpetxiaren esplotaziñuarekin zeñ arduratuko dan lehiaketa bittartez erabagiko dabe eta udalian lehiaketarako baldintzarorrixak preparatzen hasitta dagozela esan deskue eta, aurreikusittako epiak betez gero, udazkenerako atiak zabaldu eta martxa betian hasteko moduan egongo dirala pentsatzen dabe.

## Fronte bixak zazpi hillebete mendixan



Gerrako frontiak zazpi hillebete emon zittuan Eibarren, ez atzera ez aurrea, gitxi-gorabehera Ondarroa-Arrate-Eibar-Elgeta-Intxorta-Urkiola-Otxandio lerruan finkatuta eta han emon zittuen egunak benetan latzak izan ziran, bestiak beste fronte bixak mendixan aldentuta egoteko ixa tokirik ez egotian bixen artian 80 bat metroko distantzia besterik ez egualako. 1936ko uztaillaren 18xan hasi zan gerra zibilla, baiña golpistak ez eben denpora larregi erabilli Nafarruatik sartu eta ixa Gipuzkua osua mendian hartzeko. Iraillerako lurralde osua euren zan, Eibar eta Elgeta izan ezik. Egoeria ikusitta, gehixenbat miliziano sozialistak eta gudari abertzaliak osatutako Euskal Herriko gudalostiak Eibar eta Otxandio inguruan batu zittuen indarrak, golpistetatik libre geratzen zan lurralde bakarra, Bizkaia defenditzeko helburu garbixarekin. Eta Eibar-Elgeta miliziano eta gudarixen erresistentzia puntua izan ziran, apirillaren 24-25 bittartian, fronte nazionalari lagundu zetsen kaiñoi eta hegazkiñak herri bixak txiki-txiki eginda laga zittuenera arte.



**Makina Erremintaren Institutua**  
Instituto de Máquina Herramienta



**imh**  
Ingeniaritza DUALA  
UNIBERTSITATE ESKOLA



**IMHn, Maiatzaren 24an, 11:00etan**  
**Informazio Saioa**

etortzeko deitu 943744132ra / [www.imh.es](http://www.imh.es)

**DBH**  
Ondoren?  
**ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA**  
(2 urte) eta ondoren lanera edo goi maila ikasten jarraitu...

**BATXILERGOA**  
Amaitzean? **GOI-MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA**  
(2 urte) eta lanera edo ikasten jarraitu...

... goi-mailako **Heziketa Zikloa** amaitu ondoren edo Batxilergoaren ondoren: **INGENIARITZA DUALA**  
(4 urte) ikasi eta lan alternantzian

**Erdi-maila**

- Mekanizazioa
- Mantenu Elektromekanikoa

**Goi-maila (DUALA ERE)**

- Fabrikazio mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio mekanikoko Produktioaren Programazioa
- Mekatronika industrialia

**GRADU DUALA**

- Prozesu eta Produktu Berrikuntzan Ingeniaritza

*Pello Zabala, Urko Aristirekin batera, gurean izango dira datorren asteko martitzenean, hilaren 20an, "Udarik izango al dugu?" hitzaldia eskaintzen. ...eta kitto!-k antolatutako ekitaldia arratsaldeko 19.00etan hasiko da gure lokalean (Urkizu, 11) eta sarrera librekoa izango da. Hori dela-eta, Pello Zabalarekin izan gara, hitzaldirako motorrak berotzen*

*hasteko. Arantzazuko fraideak gaur egun Debagoiengan egiten dituen eguneroko aurrerapenak, eta asteroko pronostikoak eskaintzen dituen Euskadi Irratian zapatuero. ETB-n tenporen berri ematea debekatu zioten eta sasoi batean baino lasaiago dabil orain: egunero zazpi aldiz ematen zuen eguraldiaren berri eta 700 egunez jarraian ematera heldu zen, inongo atsedetik hartu barik.*

**PELLO ZABALA (meteorologoa):**

**"Tenporetan ez nuen sinesten. Gero ikasi dut interpretatzen"**

**- Nondik nora joko duzue Urko Aristik eta zuk zeuk hilaren 20an emango duzuen hitzaldian?**

Hor bertan moldatuko gara, jendeak eskatzen digunaren arabera. Izenburuari jarraituz, oraindik ez dakigu aurten udarik izango al dugun, tenporetarako ere hilabetea geratzen da... Eguraldiak norantza joko duen jakiteko, dena dela, nondik gatozen begiratzea komeni da: negurik ez dugu izan, bero nahiko izan da... Udari bero-kolpeak aurreikusten dizkiot, gero ekaitzetara joko dutenak, bero-lainoekin.

**- Zaila da pronostikatzea Euskal Herrian? Zeren arabera egiten duzue?**

Euskal Herri osoa hartuta, ez da hain zaila; jakinda, hori bai, desberdina dela kostalderako edo barnerako pronostikatzea. Nire esperientziatik abiatuta, kostaldeko euri dezentea askotan zaparradaxoa bihurtzen da barnealdean. Itsasoko hezetasunak eta hainbeste baso izateak ekaitzetarako joera hori justifikatzen dute. Orain dela bi urte izan genuen uda hura bai izan zela sanoa: halakorik, baina, ez da ohikoa hemen. Gainera, unibertsitateko irakasleek dioten moduan, klima aldaketa ere ate joka dugu.

**- Zuk ere klima aldatzen doala esango zenuke? Diozunez, basararak aurreratu egiten dira, enarak gero eta lehenago datoz...**

Iazko negua eta udaberria ikustea besterik ez dago: hori da botatzea, zenbat litro euri, beste urte osoetan baino gehiago. Donostiako meteorologoen ezetz zioten, klima aldaketarik ez dela; nik, baina, ezki-loreari,

tiloari... erreparatu eta ikusten dut ekainerako loratuta daudela. Enarak ere, gero eta gutxiago, baina gero eta lehenago. Argi dago uda, zuhaitzetan behintzat, lehenago etortzen dela. Andaluziako eguraldia gero eta gertuago dugu, harrapatzen gaituela esango nuke. Basamortua goraka dator.

**- Haizea eta animaliak dira zure txibatoak? Arantzazu toki pribilegiatua da haizeari begietara begiratzeko?**

Abantailak eskaintzen ditu, bai; haizeari garbiago antzematen zaio. Inguruak mendiek ere Arabako haizea ekartzen dute eta hodeiak zelan desegiten diren ikusteak hezetasuna datorrela abisatzen du. Laino gutxi dagoenean, hegazkinen isatsak ere laguntzen dizu. Hemen... zeru gutxi, baina garrantzizkoa! Animaliek ere asko dakite. Erleak lanera badoaz, seinale ona; hor dago zizareen portaera... Marraskiloak, geldoak izanda ere, badakite azkar joaten gau batzuetako prozesioetan...

**- Askok asmatzen duzu? Jendeak kritikatu ala zoriondu egiten zaitu gehiago?**

Zoriondu, askoz gehiago. Orain Debagoienerako ematen dut pronostikoa eta zapatuetan Euskadi Irratian aste osorako. Base-ritarrak hiru egunerako eta aste osorako pronostikoak eskertzen duen moduan, kaletarrak jakin nahi du arratsalde bizikletan ibiltzeko zer eguraldi egingo dion. Base-ritarrak ondo daki tripaki-lainoak zer diren; kaletarrak seguraski ez. Espikatzen asmatu behar dugu, pistak eman eta seinale horiek jendeak ulertzen lagundu.

**- Zuretzat zer da eguraldi ona, zer txarra?**

Nik gehiago jotzen dut jendeak zer duen gustoko, hara. Lanerako zer den hobea, autotan ibiltzeko euriak ez du laguntzen... Gure Bittoriano Gandiagak zioen moduan, ez dago eguraldi tristerik, ezta txarrik ere.

**- Eguna zeru goriz itzaltzen bada, hurrengo egunean eguzkia. Eta zeru goriz esnatzen bada, arratsalderako euria. Horrela da?**

Bai. Eta ez da gaurko kontua. Orain dela 3.000 urteko Mesopotamiako adreiluzko apunteetan ere azaltzen dira halakoak.

**- Tenporei helduko diegu. Asmatzen dute? Gaur egungo begiradei eusten diete?**

Nik ere ez nuen sinesten hasieran. 1983ko ufalen ondoren hasi nintzen aztertzen, halakoak kontatu zidatenei ez zutela balio erakusteko. Baina konturatu nintzen eguraldiak badituela fase moduko batzuk, hiru astetan berdintsu egiteko joera... Eta hori, euskaldunoi askotan gertatzen zaigun moduan, inon ez zegoen idatziz jasota. Azken urteotan, gainera, eguraldiak txintxotxintxo bete du tenporek iragarritakoa. Dena dela, interpretatzerakoan gauza asko daude hor: erdian bestelako ilargi aldea dagoen, barixakuetan izan daitekeen aldrebeskeri bat edo beste...

**- Aurtengo udarako tenporak noiz izango dira? Zenbat geratzen da?**

San Antonioren (ekainak 13) asteen, hemendik hilabete batera: ekainaren 11n hasi eta 18ra arte, aste guzti hori. Iaz urtaroa hasi baino hiru aste lehenago izan ziren eta gutziz asmatu zuten.



*etxe apainketa*



*gehigarria*

# Interiorista bat kontratatzearen abantailak

**K**risi-sasoian pentsatzen dugun azkeneko gauza aparteko gastuak egitea bada ere, interiorista bat

kontratatzea inbertsio ona izan daiteke epe luzean. Dekorazio gaietan jantzia ez bazaude edo horretarako denborarik ez baduzu, hona hemen profesional horiek kontratatzeak dakartzan hainbat abantaila:

- Aholkularitza integrala: Interioristak zure gustuak eta premiak aztertuko ditu, eta baita espazioaren ezaugarriak ere, zure etxeko txoko bakoitzarentzat diseinurik onenak aurkitzeko.
- Erraztasuna: Zuretzako zaila izan daitekeena diseinatzaileentzat erraza da, eta emaitzarik onenak lortu ahal izateko gustuz eta pazientziarekin egingo duten lana izango da gainera.
- Proiektua zuzendu: Interioristak proiektua hasieratik amaierara arte egingo du, dekorazioak bezeroaren nahiak asetzea helburu hartuta.



- Onenetik onena: Profesional horrek gehien gustatzen zaizkizun tendentziak eta estiloak eta material, ekipamendu eta teknikarik onenak ekarriko dizkizu.
  - Aurrekontua: Interioristen plangintzari esker gastuak ez dira izugarri altxatuko, guk egindako erreformetan gertatu ohi den moduan.
- Erabilitako materialen araberako aldaketa txikiak onartzen ditu, baina askoz gehiagorik ez. Hori dela eta aurrezte-

ko modua izan daiteke aditua kontratatzea.

- Estetika: Horixe da interioristak kontratatzeke arrazoi nagusienetakoa, gutako gehienak ez baikara adituak. Hala ere, detaileen inguruko erabakiak guk hartzeak ere badu bere xarma eta gure etxearen nortasuna nabarmentzeko aukera ematen digu. Badakizu, beraz, interiorista batean dirua gastatzea etorkizuneko soluzio moduan ikus daiteke.

**atelier11**  
ARKITEKTURA  
& VINTAGE

proiektuak **ERREFORMAK** dekorazioa diseinua

www.atelier-11.es 688 681 604  
Julian Etxeberria 11 943 254 356

**FRAN URKIDI**  
INTERIORISMOA

INTERIORISMOA · ALTZARI SALMENTA  
GREMIOEN KOORDINAZIOA · OBREN DIREKZIOA  
BIDEBARRIETA KALEA 27 · 20600 EIBAR · GIPUZKOA  
T · 943 200 151 · M · 660 595 555  
URKIDI@FRANURKIDI.COM  
**WWW.FRANURKIDI.COM**



# attrezzo

PROIEKTUAK BERRIKUNTZAK DEKORAZIOA



Arragueta, 7 Tel. 943 127 196  
attrezzodecoracion@gmail.com



Txonta, 30 - 1.a eta behea  
Tel. 943 12 13 67  
Faxa. 943 12 01 50  
www.ulmar.net  
info@ulmar.net

**ERAKUSKETA:**  
Urkizu, 26 (EIBAR)  
Tel 943 12 74 01

**Eraikuntza metalikoak**  
**Aluminiozko eta PVCko Aroztegia**



**IFAR**  
sukaldeak

Vegasa MUEBLES DE COCINA Y BANO **FORMA** COCINAS

banatzailea

Ifar kale, 6 - behea

Tel. eta Faxe:

**943 206 339**



# Dekorazio-joerak 2014rako

**S**eintzuk dira 2014rako dekorazio-joera berriak? Arkitektura, gustuak, bizitza-estiloak edo adinen arabera dekorazio bat edo beste aukeratzeko dugu. Horregatik, modak, koordenada beretan dauden pertsonak batzen ditu, hain zuzen ere, berdin pentsatu edo gustu berak dituztenak batu egiten dira estilo bat sortuz, izan dekorazioa, moda, artea edo filosofia.

## Berritasunak dekorazioan

Baina beti daude berritasunak, eta teknologia ere barneko dekorazioan eta arkitekturan islatzen da; iraganeko piezak gaur egungo teknologiarekin nahasten ditugu eta horrela, dekorazio pertsonalizatua eta benetakoa lortzen dugu. 2013. urtearen amaieran, dekorazioan puntako kolorea metalizatua izan da, ispiluen markoetan, hormetako testuran, ohialen detaileetan edo urre kolorearekin berritutako altzari vintage batean. Irudi geometrikoek indarra hartu zuten, kuxin, altzari modernoaren diseinuan edo altzari apaingarri



batean margotutako irudietan. Ehundura naturaletako paperak edo turkesa edo laranja bezalako kolore biziak oso egokiak dira pertsona aktibo eta dinamikoentzat. Baina aukera oso zabala da, eta aukeraturako estiloaren arabera ehundura edo paper egokia aukeratzeko baduzu, arrakasta lortuko duzu, seguru.

Estilo bohemiaok ere indarra hartzen dihardu, eta 2014an estilo eta joera-nahasketa eramango da: ahaztutako altza-

riak berreskuratuko dira, Luis XV edo XVI estilokoak esate baterako, kuxin handiek, puf-ek eta alfobrek indarra hartuko dute eta atzean utziko dira formalismoa eta estrukturala den guztia.

Exotismoa ere modan dago: arte edo ratan elementuak, gortinak, zumea edo egurra bezalako material naturalak; askatu zure irudimena, sor ezazu zure estilo propioa eta dekoratu zure etxea zeuk bakarrik edo profesional batek gidaturik.

## VENTANAS ONA<sup>®</sup> LEIHOAK

Bidebarrieta, 28 - behea Tel. eta Faxa: 943 20 28 28  
Mugikorra: 653 113 309 / 669 531 358  
E-maila: ventanas.ona@gmail.com



**AROZTEGI METALIKOA, PVC ETA MISTOA  
KONPONKETA ETA MANTENIMENDU ZERBITZUA**



## F. PASCUAL

**AROZTEGIA - EBANISTERIA**

**SUKALDE ALTZARIETAN ESPEZIALIZATUAK**

Arane, 6  
EIBAR

943 20 61 64  
943 17 19 73



### ARMAIRU ENPOTRATUAK

- Zur mota guztietan
- Zure dekoraziora egokitutako soluzioak

### SUKALDE ALTZARIAK

- Fabrikatzaileak gara
- 30 urtetik gorako esperientzia

[www.cocinaspascual.com](http://www.cocinaspascual.com)



Zubiaurre, 36-38  
ERMUA  
943 17 68 28



**VIRGINIA  
PASCUAL**



KOLEGIATU ZKIA: 580BI  
TLF: 943 530637

ERREFORMAK  
DEKORAZIOA  
PROIEKTUAK  
SUKALDEAK  
BAINUAK  
ALTZARIAK

mokka

Bidebarrieta 24.

1964  
ESTUDIO

- PROIEKTUAK
- ERREFORMAK
- DEKORAZIOA
- ALTZARIAK
- VINTAGE

jardiñeta, 14 -eibar- / tf. 656 75 64 85  
1964.virginia@gmail.com

Teilatuak Fatxadak Sukaldeak Gremioen koordinazioa etab.



JORGE VEGA S.L.  
IGELTSERITZA

F. Calbetón, 4 - 3. solairua



Tel. 943 20 83 26 eta 607 20 12 23 Tel. eta Faxa: 943 20 77 34 jorgevega.eibar@gmail.com

# Sukalde joerak: kolore neutroak eta material leunak



uria edo beltza bezalako kolore neutroak sartzen dituzten diseinuzko sukaldeak 2014rako dekorazio-tendentzia dira.

Gainera, azal eta altzarietako materialak leunak dira, egur fina, kristal laka-tua eta Dekton-a adibidez, material leunak eta porositate gutxikoak direlako. Beste joeretako bat LED argiztapenarena da, diseinua nabarmendu eta giroari argitasuna eta gozotasuna ematez gain, argindarrean aurrezten laguntzen digu-eta.

Ausartenentzat sukalde koloretsu eta ikusgarriak ere joera dira, vintage estiloaren barruan. Hala ere, gainontzeko estiloetan neutraltasuna da nagusi, kolore beltza, zuria edo txokolate-kolorearekin. Diseinuan ehundura leunen alde egiten da, harrizko edo marmolezko mesatuak edo kuartzoko sukalde-gainekoak altzairu herdoilgaitzezko etxetresna elektrikoekin eta egurrezko edo lakatutako kristalez egindako altzari lisoekin konbinatzen dira. Sukaldeko altzari eta sukaldegainekoen artean erredurak eta urte-



etako higadura ondo jasaten duten azalek eta birridura eta kolpeen aurrean seguruak direnek markatuko dute joera datozen urteotan; horixe lortu da, hain zuzen ere, material berriei esker.

Argiztapenari dagokionez, LED argiek giro ezberdina ematen diote sukaldeari, argia biziagoa da eta dotoreziaz gain, gozotasuna ematen dute.

2014rako nagusitzen den beste joeretako bat estilo amerikarra da. Estilo horren barruan, sukalde-gaineko zati

bat, sukaldatzeko izateaz gain bazkaldu edo gosaltzeko ere erabiltzen da.

Joera guzti horiek hartzen dituzte diseinu funtzionalak; altzarien barne-espazioa modu eraginkorrean banatzen da sukaldeko tresnak modu praktikoa-goan antolatu eta espazioa ondo aprobetxatzeko, ertzak batik bat. Horren adibide dira gaurko sukaldeak; horien diseinua altzarien barrualdea aprobetxatzeko pentsatua dago, eta moduluak espazioari ahalik eta etekinik handiena ateratzeko moduan banatzen dira.

**ESTUDIOS ARRILLAGA**

PROIEKTUAK  
ERREFORMAK

LOKALAK  
ETXEBIZITZAK



**Arragueta, 12 EIBAR**      **ELGOIBAR Errosario, 15**  
Tel. 943 20 06 98      Tel. 943 74 40 19

ZURE  
ETXEA  
TXUKUNTZEKO



**CASAMANIA**

**Toribio Etxebarria, 14**  
Tfnoa. 943 20 42 59  
ecasamania@euskaltel.net



943 200 443 / 661 950 710  
 elena@casanella.com  
 www.casanella.com

*Casanella*  
 STUDIO

- Obra proiektuak
- Interiorismo proiektuak
- Barne eta kanpo altzariak
- Lankidetzeta eta aholkularitza
- Contract



dekorazioa  
 oihalak  
 alfonbrak  
 paperak  
 panelak

**JAINAGA**  
 Birjiñape, 1  
 943 70 21 99

[www.irazabal.net](http://www.irazabal.net)

**irazabal**  
 Jose Maria Irazabal, S.L.  
 Azitain Industrialdea, 3 - H 943 120108

**KONFIANTZAZ**ko enpresa  
**KALITATEZ**ko lanak  
 bezeroarekiko **ARRETAZ** eginda



**IGELTSERITZA LANAK ETA GREMIOEN KOORDINAKETA**

Zure ingurunea (etxea, bulegoa, tailerra...) aldatu nahi baduzu,  
**GUK LAGUNDUKO DIZUGU...** gustorago bizitzen eta etorkizun hobegoaz gozatzen.

**IRAZABAL-EKIN ELKARLANEAN JARDUNEZ GERO, HARRO ESAN AHAL IZANGO DUZU:**

**“Hau da nik nahi nuena”**



## Desagertzeko zorian dagoenean, Debabarrena bikain Bidasoako Itzulian

Ezusteko polita eman dute Debabarreneko txirrindulariek 23 urtetik azpikoan mailan antolatzen den probarik garrantzitsuenetakoa. Amateurren mailako erreferentetzat jotzen den Bidasoako Itzuliaren 42. edizioa bakarria izan da beste behin nazioarteko partaidetza-rekin, Belgika, Italia, Frantzia eta Errusiako taldeekin. Itzuliaren lau etapetan nabarmendu dira Klub Deportiboko txirrindulariak eta Jokin Etxabe bergararren lanak arreta piztu du, azken sailkapenean denbora berean geratu den Specialized taldeko Iosu Angoitiarekin batera. GSC Blacnc Velo taldeko Loic Chetout irabazitako proban, Etxabek 15. postuan amaitu zuen: bera izan zen Gipuzkoako lehena eta 3. euskalduna. Beste taldekide batzuk ere bikain erantzun zuten: Be-

ñat Jokinen anai bikiak 21. postuan amaitu zuen, Ion Rivero 31.a izan zen eta Xabier Bengoetxea 35.a. Horrela, eibartarrak 10. izan ziren taldekako sailkapenean (21 talderen artean), jasotako gonbidapenari modu ezin hobean erantzunez.

### Txirrindulariak libre

Abenduan Debabarrenetik igorritako proposamenari Federazioak eta Gipuzkoako Diputazioak, ez bata ez bestek, erantzun ez diotenez, Eibarko Klub Deportiboak askatasuna emango diete hementik aurrera beste talde batera joateko. Taldeko arduradunek diotenez, *"azpimarratzekoak dira erakutsi duten pazientzia eta taldearekiko fideltasuna erantzunaren zain, hori beste taldeetako eskaintzak izan dituztenean"*.



Jokin eta Beñat Etxabe bikiak denboraldi bikaina dihardute egiten.

Bitxia da (gutxienez!) Gipuzkoa izeneko taldeak (Oreki Kultur Fundazioaren talde horrek 180.000 euroko laguntza jasotzen du) afizionatuen mailako lasterketa garrantzitsuean Debabarrenak baino askoz lan makalagoa egin izana. Alain Gonzalez arabarra izan da talde horretako onena, 22.

postuan, Sergio Rodriguez nafarra 73.a izan da eta lehen gipuzkoarra, Ion Ander Insausti, 75. sailkatu da, taldeka 18. postuan sailkatzeko. Eibarko taldea, bestalde, gipuzkoarrez osatuta dago eta ez du inolako dirulaguntzarik jasotzen Gipuzkoatik, klubak eskaintzen diona kenduta.

## Felix Ormaetxea "Pampo" gogoratzen

Aurreko asteko eguenean, hilaren 8an, Felix Ormaetxea "Pampo"ren Memorialaren 4. edizioa jokatu zen Aixolako urtegiaren. 25 bat lagun elkartu ziren goizean-goiz hasi eta arratsaldera arte iraun zuen ekitaldian: 08.30etan maratoia hasi zen, 10.30etan maratoi



erdia eta, ordu berean, oinez batzuk itzuli bat egiteari ekin zioten eta beste batzuk biokari. Ondo merezitako bazkaria Iruki sagardotegian egin zuten 15.30etan.



## Barriola-Xala etzi Astelenan

Pilota profesionaleko lehen mailako buruz buruko txapelketaren asteburuko partidurik interesgarriena jokatuko da domekan Astelenan txapelaldun izandako Aspeko bi pilotarien artean. Barriola eta Xalaren arteko partidu nagusiaren ondoren bigarren mailako beste kanporaketa bat izango da, Tainta eta Jakaren artekoa. Jaialdia hasteko, Titin beterranoak eta Tolosa gazteak jokatuko dute elkarrekin, Aritz Lasa eta Merino II.aren kontra.

## Concepto Egile Ligako azpitxapeldun



Dramatismo puntua bazuen Santurtzin jokatu zen ligako azken jardunaldiko partiduak. Etxeko taldeak mailari eutsi nahi zion eta Debabarreneko talde nagusiak azpitxapeldun izateko aukera zuen eta hurrengo denboraldian Kopan jokatuzko txartela eskura. Concepto Egilekoak gehiago izan ziren eta 3-6 nagusitu, atsedendira 1-2koarekin joan eta gero. Rafak hiru gol sartu zituen eta bana Ivanek, Ericek eta Finok. Amaiera gozoa izan zen guztientzat, Santurtzikoak ere mailari eutsi baitzieten beste emaitzei esker.



## Urbateko igerilariak Tarbesen eta Bergaran

Urbateko lau igerilari onenetakoak izan ziren parte hartzen asteburuan Frantziako Tarbes hiriko "Les 24eme Nautiquesean". Ander Izagirre, Nekane Tejedor, Ioar Urkiri eta Maite Barruetabeña maila onean jardun zuten zapatu eta domekan jokaturako probetan, eta Barruetabeña gazteak Espiniako txapelketara joateko gutxiengo marka bi eskuratu zituen: bizkar erako 100 eta 200 metroko lasterketan. Urbateko txikienek, bestalde, kirol zehaztasun ligako 5. eta azken jardunaldia jokatu zuten Bergarako igerilekuan: igeri taldeko benjamin eta alebinek 100, 200 eta 400 estilotan jardun zuten eta baita tximeleta erako 50 eta 100 metrokoetan.



## berriak

### KIROL PATRONATOA

Urtero lez, Udal Kirol Patronatoak hainbat aktibitate prestatu ditu udarako. Tenisak, igeriketak eta foball torneoak izango dira protagonista nagusiak. Tenisean bost eguneko ikastaro intentsiboak emango dira, hiru datetan. Igeriketa ikastaroak ekainaren 30etik uztailaren 24ra izango dira, astero bi egunetan, hirutan edo bostetan. Foball 7an Eskualdeko Torneoaren 17. edizioa jokatu da eta izenak emateko epea maiatzaren 23an amaituko da. Multi-aktibitateetan lau txanda izango dira aurtun.

### FOBALLA

Euskal Ligako nesken foball taldeak Euskadiko Kopari ekingo dio domekan Berriotoaren zelaian hurrengo asteburuan itzulerako partidua Unben hartzeko. Bizkaitarrei nagusitzen bazaie Athletic-en aurka jokatuko dute seguruenik, azken hauek faboritoak baitira Zarautzen aurrean. Nesken Lurralde mailako taldeak, bestalde, bina berdindu zuten Luberrirekin Unben.

## Deltecokoak triatloi denboraldian sartuta

Hamabost egun dira triatloi denboraldia hasi zutela eta azken asteburuan, esaterako, Debako triatloi sprintean, Salouko Extreme man ironman erdian eta Tarragonako Ironcat Ironmanean



izan ziren gure herriko triatloi taldekoen partaideak. Debakoan Pello Osoro hirugarrena izan zen maila absolutoan eta 23 urtetik azpiko onena; horrez gain, Alejandro Altuna betereanoen V2 mailako lehenengoa izan zen, eta Ane Ziaran eta Aitziber Urkiola 23. urtetik azpiko urrezkoa eta brontzezkoa (8.a eta 10.a sailkapen orokorrean). Deltecoko beste 11 atleta izan ziren parte hartzen kostaldeko herrian.

Saloun jokaturako proban, 1.200 parte-hartzaileen artean, Igor Atxa 47.a izan zen, Edu Oiarzun 134.a (bigarrena V2 betereanoen mailan) eta Igor Etxeberria 752.a. Horko Extreme-an 1.900 metro bete zituzten igerian, 85 kilometro bizikletan eta 21 korrika. Tarragonan Oscar Castrillok jardun zuen.

**IBILALDIA GERNIKA-LUMO 2014**  
euskararen bihozferak  
Ekainak 1

**AUTOBUS** Irteera: 09.30etan  
10 eurotan  
Buelta: 19.30etan **zerBITZUA**

**Bihozferak** ekainak 1

J. A. MOGEL-EKO  
GURASOEN  
ELIKARTEA

...ETA KITTO!  
EUSKARA  
ELIKARTEA

943 20 37 15 **Ibarkurutze, 5**

altzariak eta koltxoak

**Karlos**

**MUGICA** ITURGINTZA

AIRE EGOKITUA, ITURGINTZA,  
GASAREN INSTALAZIOA, KALEFAKZIOA,  
PETROLIO-PRODUKTUAK, BAINUEN  
ERREFORMAK ETA ABAR...

**HANSGRÖHE** KANILEN BANATZAILEA  
ZORU ERRADIATZAILEA  
EGUZKI-ENERGIA

**Egigurentarren, 18**  
Tel. 943 20 10 30 - Faxa. 943 20 72 24



## Hiru domina Ipuruako gimnastentzat Gipuzkoakoan

Nahia Gonzalez Gipuzkoako azpitxapelduna izan da alebin A mailan eta esku libreko modalitatean eta Enara Zufiria gauza bera infantil B mailan. Horiek izan ziren lorpen handienak Ordizian zapatuan jokaturako Gipuzkoako Eskola Txapelketan. Taldeka Ipurua bosgarrena izan zen alebin A mailan eta zortzigarrena infantil B mailan. Alebin C mailako taldea, bestalde, seigarrena izan zen, 33 talderen artean, Hernanin domekan jokaturako Udaberri Torneoan. Bihar hitzordua izango dute Azkoitian Jennifer Hernandez eta Irati Yarza federatuek, taldekako Euskadiko txapelketan. Hi-



laren 24an, bestalde, Ipurua kiroldegiak hartuko du amateur mailako Gipuzkoako finala, kadete eta jubeniil mailako kadeteekin

## Arkaitz Rodriguezek lider jarraitzen du

San Andres bolatokian jokaturako tiraldiaren ondoren, Asola-Berriko ordezkariak hiru puntuko alde kentzen die Bittor Ugarteburu eta Olatz Rodriguez taldekidei eta Angel Ibarluzea (San Miguel), Antonio Ibarluzea (Elgeta) eta Joseba Lazkano (Lastur) bolariari. Bihar zortzigarren jaurtialdia izango da Elgetako bolatokian, arratsaldeko 17.00etan hasita.



Ibai Diezen tiraldia.

## Ligako irabazlea Kopatik kanpo foball zaletuan

Durangok final laurdenetan amaitu zuen bere ibilbidea Kopan, Koskorrekin husna berdindu eta gero penaltietan galdu ondoren. Koskorren aurkaria finalerdietan Areto izango da, horrek ere bina berdindu ondoren Alkideba baino gehiago izan zelako penaltietan. Beste finalerdia Esmorgak (3-0 irabazi zion Fontaneria Mujikari) eta Oishi Tankemansek jokaturako dute (honek EzDok gainditu zuen 2-1). Azken finalerdi hau bihar jokaturako da 09.00etan eta Areto-Koskor handik ordu eta erdira, biak ere Unben.

## "Jende guztiaren babesa berdin-berdin eskertzen dugu"

Horrela adierazi zuen Alex Aranzabal Eibar Foball Taldeko presidentek klubaren kapital zabalkunde kanpainaren barruan abiarazitako Defentsaren Paretaren ekimenaren inguruan zuzendaritzak hartutako jarrera berria. Horri gehitu zion 1.000 euroko aportazioa egiten dutenen izenak paretan idazteko ideia "asmo txar barik, marketing arrazoiengatik" abiarazi zutela. Aportazioa egiten duten guztien izenak ipiniko dituzte, ematen duten diru-kopurua edozein delarik ere. Maila ez galtzeko abuztuaren 6rako 1.724.272 euro batu behar dituztela kontuan hartuta, behar duten dirua batzeko larri ibiliko direla azpimarratu eta, askok kontrakoa pentsatu arren, B planik ez dagoela berretsi zuen Aranzabalek.

Bestalde, Gaizka Garitanoren taldeak A Coruña-ko Deportiboaren aurka jokaturako domeka eguerdian, 12.00etan Riazorretik Canal Plusek zuzenean eskainiko duen norgehiagokan. Partidu garrantzitsua talde bientzat, hirugarrenarekiko orain arte zuten alde murrizten joan delako: aurreko jardunaldian Las Palmasek azken minutuetan lortutako garaipenarekin talde hori hiru puntura murriztu du Eibar FT-rekiko. Hori bai, Eibarrek alde du averagea.



## Txartelak salgai Deporreko Klubaren egunaren bazkarirako

Ekainaren 1ean, domekan, ospaturako du Eibarko Klub deportiboak urteroko bere egun handia; Arraten, ohikoa denez. Eguna pasa egiteko, klubeko batzordeek hainbat ekintza antolatu dituzte. Horrela, mendi batzordekoek ibilaldi bi prestatu dituzte: 08.15etan Deporretik irtengo dena Arratera helduko da Santa Kurutz, Kalamuako Parlamentua eta Kalamuatik pasatuta; haur eta gurasoentzat 09.00etan Ego-Gaietik abiatuko dena autobusez joango da Ixuaraino eta, handik, Kalamua, Akondia eta Aizketatik pasata iritsiko da Arratera (azken horretarako Deporren eman beharko da izena aurretik). Eski batzordeak roll-eski igoera antolatu du, Itzio-ko parketik 09.30etan hasiko dena. Behin Arraten, eguerdian pilota eta dantza batzordeek prestatutako Caeloren omezezko pilota partiduak eta Kezka dantza taldearen emanaldia izango dira, jarraian haur eta helduen dominen banaketarekin jarraitzeko. 14.30etan bazkaria egingo da Tiro-Pitxioan: horretarako Deportiboan salgai dauden txartela erosi behar dira (15 euro helduen kasuan eta 8 haurren).





# Euskal Jaia ate joka dugu

Atzo arratsaldean aurkeztu zuten Klub Deportivoan Euskal Jaiaren 49. edizioa, datoren asteburua -hilaren 23tik 25era- hartuko duena. Mende erdira heltzeko urtebete falta zaion ekimenak aurreko urteetako bide beretik joko du: gero eta parte-hartzaileago izan nahian eta euskal giroaren alde eginez. Hori dela-eta, antolatzaileek "denok kalera baseritar jantzita" irtetzeko animatzen gaituzte. Badira ekitaldiak aurrez izena ematea eskatzen dutenak eta horko epea, gainera, domeka honetan amaituko da: zapatuko kantu-afarian parte hartzeko eta domekako herri-bazkarian, batean zein bestean, txartelak Deporren hartu daitezke. Langileek eta dirua dutenek 10 euro ordaindu beharko dute eta langabetuek, ikasleek eta umeek 7. Antolatzaileek esan digutenez, "sarrerak martxa onean badoaz

ere, oraindik eskuragai daude". Horko jalaria herriko Ondo Nahi, Txirixo, Gazte Gogor, Ipuru, Kamarroak, Legarre Gain, Umbe, Usobide, Zatixa eta Bide Alde elkarte gastronomikoei prestatuko dute, iaz errekuperatutako ekimenari eutsiz. Eta Obere-na harategiak eta Danena banaketak-ekok ere laguntzen dute. Domekako menuan, "errusiar entsaladilla entsalada mistoaren tokia hartuko du".

## Barixakutik domekara, geratu barik

**Hilaren 23an**, 17.00etatik 19.00etara Kailian Jolasian izango da Untzagan, Astixako begiraleek 5, 6 eta 7 urteko umeentzat jolasak dinamizatzen. 19.30etan Eibarko Kantuzaleak taldekoek herriko kaleak alaituko dituzte eta gauetan, Untzagako karpian, Imanol Ituiñok magia ikuskizuna eskainiko du.

**Zapatuan, hilaren 24an**, Artisau eta Baseritarren Azoka hasiko da 10.00etan T. Etxebarria kalean. 32 postu ipiniko dituzte artisauak eta zortzi izango dira herriko baserritarrak. Herri-kirolak eta bertso-lariak izango dira



**Aurten Ezpalak-eko egitarauaren barruan danbolinteroan lanari egingo zaio errekonozimendua.**

11.45etatik aurrera, eta Eskolen arteko VII. herri-kirol lehiaketa izango da jokoan. Arratsaldean Benta Zaharreko Mutiko Alaiak izango dira 18.30etatik aurrera eta gauetan lehen aipatutako kantu-afaria.

Domekan, hilaren 25ean, Euskal Jaiko kalejira abiatuko da Urkizutik 12.00etan eta handik ordu erdira Ezpalak jaialdia eskainiko da Untzagan. "Danbolinteroak" izango dute gaitzat eta Ingalaterra, Katalunia, Gaztela-Leon, Lapurdi eta Berriztik etorritako dantza taldeak izango dira, Kezkarekin batera. Jarrain herri-bazkaria egingo da. Arratsaldeko erromeria eta larrain-dantzekin amaituko da Euskal Jaia.



Artisauen Azokarekin batera, bertso-lariak jardungo dute eta baita herri-kirolen ikuskizunak ere, Eskolen arteko 7. edizioarekin. FERNANDO RETOLAZA

M<sup>a</sup> JOSE RUIZ DE PORRES Doktorea  
GINEKOLOGOA

Urkizu, 13 943-120200 eta 943-120204

LEKUALDAKETA  
Eibarko  
Centro Médico  
Osasundegia



cmeibar@hotmail.com www.centromedicoeibar.es

ZU ZAINTEKO ZERBITZU ONENA  
eskaintzeaz gain, profesionaltasunari  
eta pazientearekiko tratu atseginari  
eusten jarraituko diogu.

info@gerritek.net  
www.gerritek.net

**SOLUZIO  
INFORMATIKOAK:**

- Marka guztietako zerbitzu teknikoa eta salmenta
- Neurria egindako software-aren garapena

ASUS



SAMSUNG

TOSHIBA  
Leading Innovation >>>

**Gerritek**  
INFORMATIKA

Txaltxa-Zelai, 4-6

Tel: 943-033892 / Faxe: 943-031521

**MINTZA EGUNA**  
MINGAINAK DANTZAN  
2014ko MAIATZAREN 31n, IZARRAN

**EGITARAUA**

11:00 Ongi etorria eta hamaiketako plaza berria  
12:00 Beluntzako ur jantziara ibilaldia Mintzodromoan  
13:30 Mintza Kalejira bertsolariekin  
14:30 Bazkaria plaza berria  
18:30 Sari honaketa  
17:30 Erromeria Parradust taldearekin  
22:00 Kontzertuak gaztetxean

\* Euria izanez gero bazkaria frontoan izango da.

**BAZKARIA 16C. ESKURATU TXARTELAK MAIATZAREN 23a BAINO LEHEN!**  
www.mintzalaguna.org

© kukuzumusu

ANTOLATZAILAK: BAZKARIAK: LAURONTZAILAK:

## Aurtengo Mintza Eguna, Izarran

Maiatzaren 31n Izarran (Arabian) egingo da aurtengo Mintza Eguna. Euskal Herri osoko mintzalagunen jaia goizean hasi eta gauera arte ospatuko dute bertara joan eta parte hartzera animatzen direnek eta, urtero lez, ... eta kitto! Euskara Elkartearen Berbetan egitasmoan parte hartzen dutenetako batzuk han izango dira, beste herri batzuetatik joandako mintzalagunen artean gure herria ordezkatzeko. Egitaraua 11.00etan abiatuko da, joandako guztiei ongi-etorria eginda; 12.00etan, nahi due-

nak Beluntzako ur-jauziak ikustera joateko antolatatu duten mendi ibilaldiarekin bat egiteko aukera izango du eta, bestela, jolas Mintzodromoan parte hartzeko aukera ere izango da. Bertsolariarekin batera egingo den mintza kalejira amaituta, herri bazkaria egingo da plazan eta bazkalostean hainbat kideri oroigarria banatuko zaie. Arratsaldeko erromeria Parradust taldekoen eskutik egingo da eta, jaia agurtzeko, gaztetxean hainbat taldek kontzertua emango dute.

**MAMADOU DIA**  
liburu aurkezpene  
presentación del libro

Maiatzak 19 de mayo  
18:00etan  
Juan San Martín Liburutegian

**3052**  
Persiguiendo un sueño

## "3052. Persiguiendo un sueño" liburu aurkeztuko dute

Datorren astelehenean, 18.00etan Mamadou Dia senegaldarrak "3052. Persiguiendo un sueño", berak idatzi duen liburu aurkeztuko du Juan San Martín Liburutegian, Udaleko Immigrazio Alorrak eta liburutegiak antolatatu duten ekitaldian. Egileak berak azaldutakoari jarraituta, ametsa 2006ko maiatzean jaio zen, Europako "El Dorado"-k erakarritako beste 83 gazte senegaldarrekin batera kaiuko batean ontziratu zenean. Liburuaren lehen aleen salmentarekin lortu duen diruarekin, egileak bere jaioterriari garatzen laguntzeko asmoz "Hahatay – son risas de Gandiol" GKE-a sortu du.

## Ustekabek saria jaso zuen Condom-en

Frantzian, Condom-en aurreko asteburuan egin zen Europako banda jaialdian bigarren saria jaso zuen Ustekabe fanfreak, ikuskizun tradizionalari esker. Saria eman dien ikuskizuna prestatzeko dantza ikastaro azkara egin zuten musikari gazteek, Oier Araolazak lagunduta: "Gure hasierako asmoa guk jo eta kanpoko dantzari batzuek dantza egitea zen, baina Oierri esker ikusi dugu guk geuk dantza xumeagoak egin genitzakeela, eta berak erakutsi dizkigu. Ez dakigu nola eskertu eman digun laguntza guztia", diote.

Etxera pozarren bueltatu dira: "Jaialdiko banda xumeenetako bat izan gara.

Umeen jaialditik kanpo, banda normalen artean, gazteena ezbaierik gabe. Kide kopuru aldetik ere, 18 musikari eta hiru laguntzaile izan gara bertan, eta bazeuden 40 musikaririk gorako bandak, animatzaile eta guzti. Guk 21 lagun artean egin dugu dena. Gainera, guretzat lehen aldian izan da horrelako jaialdi batean. Gauzak ondo egiten ahalegindu gara eta esperientzia hori baliatzea zen garrantzitsuena. Baina, gainera, besapean saria ekarri dugu Eibarrera. Ezin gara alaiago egon", azpimarratu dute. Ustekaberen webgunean sartuta jaialdiko argazkiak ikus daitezke eta bideo batzuk sareratzeko asmoa ere badute.



## Musika Eskolako kontzertua

Datorren eguaztenean, Coliseoan 18.00etan hasiko den kontzertuarekin, agurtuko dute ikasturtea Juan Bautista Gisasola Musika Eskolako ikasleek. Emanaldian, besteak beste, txistu-tronpeteta-txirula... taldeak, Hizkuntza Musikaleko ikasleek, Txiki Rock taldeak, soinu txikiek eta akordeoiek, Xa-

pop taldeak, Orkestrak, J.B. Gisasola Koruak, Bandak eta Face to Eye taldeak hartuko dute parte eta amaieran diplomak banatuko dizkiete. **Hurrengo ikasturterako matrikulazio kanpaina**, bestalde, maiatzaren 26an hasiko da eta interesa duenak ekainaren 20ra arteko tartea izango du izena emateko.





## Beste hogei betetzeko prest

Jabier Muguruzak "Beste hogei" lan berria aurkeztuko du gaur Coliseoan, 20.30etan hasiko den zuzeneko emaldian (8 euro). Hogei urte kantuan eman ditu Muguruzak eta, lan berriaren izenburuak argi dioen moduan, oraindik ere beste horrenbeste urte taula gainean pasatzeko esperantza dauka. "Bikote bat" aurreko lanarekin arrakasta handia lortu zuen eta ildo berari jarraitu dio gaur aurkeztuko digun lan berrian: ohiko kolaboratzaileen lumatik sortutako testu intimistak eta Mikel Azpirozren pianoak babestutako Muguruzaren doinuak. Azkenaldian Jabierri laguntzen dion Mireia Otzerinjauregiren ahotsarekin batera, lan be-



rrian beste hainbaten laguntza izan du Muguruzak: Uxia abeslaria, Joseba Tapia trikitilaria, Gorka Benitez saxo-jolea, Txema Garces kontrabaxua, Chris Case tronpetea, Francisco Herrero biolin-jolea...

## Hasi da eskola-antzerkia

Hogeitamar urte bete ditu astelehenean Portalean aurkeztu zuten Debabarreneko Eskolarteko Antzerki Erakusketak. Hezkuntza Esparruko Egoitza Zentrukoek eta Narruzko Zezen taldekoek antolatutako jaialdian sei konpainiak beste horrenbeste antzezlan taularatuko dituzte, bost Hezkuntza Esparruan eta

bat Coliseoan. Txalo konpainiak eguaztenean taularatu zuen "Mollie Malonen ipuin sinestezina" antzezlanak inauguratu zuen aurtengo programa eta bihar egitarauko bigarrena, La Papa Teatro-ren "Con los pies en las nubes" musikala hartuko du Coliseoan, 17.00etan hasita. Egitarauan aurrera eginda, datozen egunetan ere antzerkiarekin gozatzeko aukera bikaina izango da: hilaren 20an Titiriguirik "Hay un gallo en el tejado" eskainiko du, 22an Teatro Paraisoren eskutik "Erpurutxo" antzezlan ailegatuko da, 27an "Canciones de titiriteros" eskainiko du Huescako Los Titiriteros de Binefar taldeak eta Bizkaiko Gorakada konpainiak agurtuko du erakustaldia, hilaren 29an, "Aladdin" izenburuko lanarekin.




La Papa Teatrotik "Con los pies en las nubes" eskainiko du bihar Coliseoan.

## laburrak

### TANTANEZ TANTAN

Eibarko euskalgintzak deituta, maiatzaren 31n (zapatuan) "Tantanez Tantan, Eibarren euskaraz bizi!" ekitaldia egingo da Eibarren. Aurreko edizioetan egindakoaren bidetik, oraingoan ere Urkizutik Untzagara bitartean giza katea osatu nahi da, iturrian urarekin betetako gantxila eskurik esku eramateko. Ibilbide osoan jendea iladan egotea komeni denez, antolatzaileak jende guztia ekitaldian parte hartzera animatu nahi dute.



### AITOR OSUNA KOSKORREN

Aitor Osuna donostiarrak kontzertua emango du gaur gauerditik aurrera Koskor tabernan. Musikari gazte honek, abestearekin batera, kantak idatzi eta ekoizten ditu eta horiek ezagutzera emateko Soundcloud, Spotify edo Youtube moduko plataforma digitalak erabiltzen ditu.

## JOSE ANTONIO PEÑA ESTRELLA

(IV. urteurrena 2010-V-17)



"Betirako gure oroimenean  
egongo zara"  
ETXEKOAK



### ○ Euskararen ispilu gordina

Urteko txostena kaleratu du Behatokiak, eta bildutako kexuek begi bistan jami dute beste behin euskarak "zokoratuta" segitzen duela. Erakunde publikoaren jamerak dira hermitaren kezka iturri nagusia eta, agiri askotan, ez da euskararik ageri. Orokorrean, honelako puntuak nabarmendu daitezke: Frantziako administrazioaren aldetik, "behamik ez, eskubiderik ere ez"; Nafarroako Gobernuaren kasuan, "elebakartasunari tinko eusten diola"; Espainiako administrazioaren jameran, "betiko erak, betiko emaitzak"; Eusko Jaurlaritzari dagokionez, "lege babesa ez da nahikoa"; eta Diputazioen kasuan, "enpedeetako seinaleek, kale".

## euskararen txokoa

### ○ 68 euro biztanleko euskeraren alde

Eusko Jaurlaritzaren eta bertako erakunde autonomoen gastuei foru aldundietako eta 5.000tik gorako Udalen batzabestekoa gehituz, administrazio publikoak urtero 68 euro gastatzen du biztanleko urte baten. Emaitza hori atera daiteke, behintzat, euskeraren normalizaziorako 2012ko datuetatik. Urte horretan hasi ziren erakunde publikoak murrizketak egiten eta hor 149,6 milioi euro erabili ziren asmo horretarako. Patxi Baztanika Politika Linguistikorako kontseilari-ordeak dioenez, "kopuru horietatik bi herenak Eusko Jaurlaritzak ipintzen ditu". Hezkuntza sistemaren eta helduen euskalduntzeak jasotzen dute diru gehien.

## Koldo Zuazoren liburu berria

"Euskalkiak" liburua plazaratu du Koldo Zuazo hizkuntzalariak. Gai horri buruzko hirugarren liburua da eta berritasun asko dakartza, baita euskalki, azpieuskalki eta hizkeren mapa bat ere. EHUko irakasle eibartarrak jarraitzen du pentsatzen Gasteiz izan zela mendebaleko euskalkiaren sorgunea eta hipotesi berri bat plazaratu du: Huesca eta Bearn izan zirela ekialdeko euskalkiaren ardatza. Berak dioenez, euskalkiak zaharrak direla ustea uste okerra da.



## Bertsolari gazteen txapelketa

Azken urteotako martxari jarraituta, aurten ere Plazatik Gazte-txera Bertsolari Gazteen Txapelketa antolatu dute eta Eibarko saioa gaur egingo da, gaztetxean, 21.00etan hasiko den afaria amaitu eta jarraian. Kanporaketan jardungo duten bertsolariak

hauek dira: Jon Gurrutxaga & Josu Oiartzabal, Jon Mikel Mujika & Aimar Goenaga, Eneritz Arzallus & Eneritz Artetxe eta Manu Goigana & Jokin Bergara. Saioa baino lehen, 19.00etan Buenos Aires tabernatik abiatuta gazteek triki-poteoa egingo dute.

## Herriko ikasleen bertso-saioak

Astlehenean eta martitzenean, egun bietan egongo da umeen bertsoekin gozatzeko aukera, Coliseoak hartuko dituen jaialdietan (18.00etan). Hilaren 19ko saioan La Salle, Aldatze, Urkizu eta Amaña ikastetxeetako taldeek hartuko dute parte eta hurrengo egunekoan Juan Antonio Mogel eta Arrateko Andra Mari eskoletan ikasten dutenen txanda izango da. Egitasmoak zazpigarren ikasturtea bete du gurean eta datorren asteko jaialdietan Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailetakiko ikasleen bertsoak entzuteko aukera egongo da. Jaialdia herri-tar guztientzat irekia dago eta sarrerak euro bitan eros daitezke, Coliseoko leihatilan edo interneten ([www.kutxabank.es](http://www.kutxabank.es)).



Aurtengo edizioko bost sarituak.  
AINHOA LUZ

## Ipurterreko sari-banaketa "magikoa"

Eguazten goizean banatu zitzaizkien sariak Ipurterre euskarazko idazlan lehiaketako aurtengo irabazleei, Lucia Palma, Peru Ibarbia, Beñat Laskurain, Nerea Olabarri eta Maialen Martinezi. Lehen Hezkuntzako eta DBHko ikasleek oso harrera ona egiten diote ...eta kitto! Euskara Elkartek

antolatzen duen lehiaketari eta urtero mila idazlan baino gehiago jasotzen dituzte. Sariak banatzeko ekitaldia Hezkuntza Esparruko aretoan egin zen eta bertara joandakoek ondo baino hobeto eman zuten goiza, Txoborro magoak egindako trikimailu eta jokoekin.



# laztanak emoten...

Zure senide edo lagunena bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n. Bidaltzekotan: [publizitatea@etakitto.com](mailto:publizitatea@etakitto.com)



Zorionak, AMAIA, martitzenian bost urte bete zenduazena-eta. Familixa guztiaren eta, batez be, Gorkaren partez.



Zorionak, KEPA, domekan hiru urte beteko dozuazena-eta. Laztan haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, ANDONI, astelehenian hiru urte beteko dozuazena-eta. Etxekuen partez.



Zorionak, KATTALIN Arrasate Lasa, gaur 7 urte egiten dozuazena-eta! Aitxixaren partez eta patxo haundi bat amamak izarretatik!!



Zorionak, IRATI Martin Gonzalez, sei urte egitterakuan. Munduko cocuya polittenendako aitxixa eta amamaren partez.



Ongi etorri, JULEN, maiatzaren 3tik gure artian zagozelako eta gu guztiok ezin zoriontsuago. Familixaren partez.



Zorionak, LIDE, gure printzesa, hillaren 13an bost urte bete zenduazena-eta. Muxu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, ELENE, gaur bi urte egiten dozuazena-eta. Patxo haundi bat etxeko printzesarentzat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, PAULE, domekan zazpi urte egingo dozuazena-eta. Kriston patxo potoluak etxeko printzesarentzat.



Zorionak, OLATZ! Jarraitu jator eta danon lagun, oiñ arte moduan. Etxekuen partez.

## hildakoak

- Maria Badiola Lugarzaristi. 97 urte. 2014-V-7.
- Esther Ibisate Ruiz de Gauna. 84 urte. 2014-V-8.
- Carmen Larrinaga Aldaolea. 91 urte. 2014-V-12.
- Lucia Santamaria Urkia. 88 urte. 2014-V-13.

## jaiotakoak

- Martina Lopez Rodriguez. 2014-V-2.
- Janira Montero Gisasola. 2014-V-4.
- Zalao Ormaetxea Lazkano. 2014-V-5.
- Hodei Seguin Cid. 2014-V-6.



Zorionak, UNAX, astelehenian lau urte bete zenduazena-eta. Laztan haundi bat OIHANA eta famelixa guztiaren partez.



MANEX eta LEIRE, zorionak bixori! Unai eta famelixaren partez. Eta muxu haundi bana!




Zorionak, MADDI, printzesa, hillaren 14an urtetxua egin zenduan-eta. Muxu haundi bat Donostiako eta Eibarko famelixaren eta, batez be, PAULen partez.

## zineaColiseoan

(1 ARETOAN)  
17an: 19.45, 22.30  
18an: 20.00  
19an: 20.30

"Molière en bicicleta"


Zuzendaria: Philippe Le Guay



(2 ARETOAN)  
17an: 19.45, 22.30  
18an: 20.00  
19an: 20.30

"Her"

Zuzendaria: Spike Jonze



(ANTZOKIAN)  
17an: 19.45, 22.30  
18an: 20.00  
19an: 20.30

"Una noche en el viejo Mexico"

Zuzendaria: Emilio Aragon



## BARIXAKUA 16

### ABONTZAKO JAIK

- 18.30.** Txupinazoa eta suziriak.  
**18.45.** Umeendako ikuskizuna: "Lore Power".  
**19.30.** 6. ardo-dastaketa, Mahatsondok babestua.  
**19.45.** DJ Xaibor.  
**21.00.** 6. patata-tortila txapelketa.  
**23.00.** Agurra. Abontzan.

### BATZARRA

- 19.00.** Sanjuanak antolatzeke, Jaixak Herrixak Herrixandakok deituta. Txaltxa Zelaian.

### PLAZATIK GAZTETXERA

- 19.00.** XIII. Bertsolari Gazteen Txapelketa (kanporaketa). Trikipoteoa, Bueno Aires tabernatik.  
**21.00.** Afaria (6 euro). Ondoren bertsolariak: Jon Gurrutxaga & Josu Oartzabal, Jon Mikel Mujika & Aimar Goenaga, Eneritz Arzallus & Eneritz Artetxe eta Manu Goiogana & Jokin Bergara (sarrera doan). Gaztetxean.

### ELKAR EKIN

- 19.00.** Ongietorria eta harrera. Dokumentazioa ematea.  
**19.15.** Dinamikak: txokoak, azoka eta "speaker corner-a".  
**21.00.** Harremanak egiten jarraitzeko tartea.  
**22.00.** Amaiera. Bektokixan (B. Sarasketa, 7-1 ezkerre).

### DIA DAS LETRAS

- 19.00.** Jai Batzordearen taberna zabaltzea eta Os Galaicos taldearen kalejira. Herri kirolak.  
**22.00.** Dantzaldia, goizaldera arte, "Alto Standing" orkestrarekin. Urkizun.

### KONTZERTUA

- 20.30.** Jabier Muguruza. "Beste hoge!". 8 euro. Coliseoan.

### KONTZERTUA

- 00.00.** Aitor Osuna. Koskor tabernan.

## ZAPATUA 17

### ARGAZKIA MAIATZEAN

- 10.00-14.00/16.00-20.00.** Argazkilaritza digitalaren inguruko tailerra, Jose Manuel Naviaren eskutik. Armeria Eskolan (areto nagusian).

### ERRESKATE-TXAKURRAK

- 11.00.** Entrenamendu irekia, Ucas Arrateren eskutik. Arrateko zelaian.

### ABONTZAKO JAIK

- 11.00.** Suziriak eta buruhaundiak.  
**11.30.** Umeendako jolasak.  
**12.30.** Txistorra-jana.  
**14.30.** Herri-bazkaria: 400 lagunentzako paella.  
**17.00.** Toka eta igel-toka txapelketa, Ipuruako jubilatue atarian.  
**17.30.** Txokolate-jana gure nagusientzat, jubilatuen etxean.  
**19.00.** Toka eta igel-toka txapelketako irabazleei sariak banatzea.  
**19.30.** Gorriti eta bere abereak.  
**21.00.** Lisker taldearen berbenaren hasiera.  
**21.30.** Erretegi erraldoia: saiheskia, oilasko izterra eta hanburgesa.  
**22.00.** Lisker taldearen berbenaren jarraipena. Abontzan.

### GALIZIAKO JAIK

- 11.30.** Umeendako "chave" jaurtiketa.  
**12.30.** Igel-toka.  
**13.00.** Laguntzaileendako luntxa (Galiziako Etxean).  
**16.00.** Helduendako "chave" jaurtiketa.  
**18.30.** Galiziako dantzak eta musika, Os Galaicos (Eibar) eta Rasmia Rondalla (Donostiako Aragoiko Etxea) taldeekin.  
**20.00.** Dantzaldia, Los Trovadores orkestrarekin (21.00ak arte).  
**23.00.** Dantzaldiak goizaldera arte jarraituko du. Urkizun.

### ANTZERKIA

- 17.00.** "Con los pies en las nubes" (La Papa Teatro & L'Atelier Danza). 5 euro. Coliseoan.

### KONTZERTUA

- 23.00.** ZZ-Torpes. Ez Dok tabernan.

## DOMEKA 18

### GALIZIAKO JAIK

- 11.45.** Os Galaicos taldeak Eibarko Trikitilariei ongi-etorria egingo die Untzagan eta jarraian kalejira, Urkizuraino.  
**12.30.** Dantza eta musika erakustaldia.  
**14.00.** Lore-eskaintza Castelaoren oroitarriari.  
**15.00.** Bazkaria, Galiziako Etxean.  
**18.30.** Dantzaldia, Los Trovadores orkestrarekin.  
**22.00.** Jaien amaiera. Urkizun.

### ABONTZAKO JAIK

- 12.00.** Auzoko hildakoen oroimenezko meza: lore-eskaintza eta Goruntz abesbatza. San Pio X.a elizan.

### KONTZERTUA

- 12.30.** Cielito Musika Banda. Coliseoan.

### MUSEOEN EGUNA

- 17.00.** Nazioarteko Eguna. Sarrera doan. Eibarko Museoan (Portalean, 5. solairuan).

## ASTELEHENA 19

### BERTSOAK

- 18.00.** Umeen bertso jaialdia. 2 euro. Coliseoan.

## MARTITZENA 20

### IKASTEN

- 10.00.** "Musica. Periodo romantico", Marina Lertxundiren eskutik. Armeria Eskolan.

### ANTZERKIA

- 15.00.** "Hay un gallo en el tejado" (Titirigui). Doan. Hezkuntza Esparruan.

### IKASTEN

- 17.00 eta 18.30.** Joskintza tailerra. Portalean.

### BERTSOAK

- 18.00.** Umeen bertso jaialdia. 2 euro. Coliseoan.

### HITZALDIA

- 19.00.** "Udarik izango al dugu aurten?", Urko Aristi eta Pello Zabalaoren eskutik. ...eta kitto!-n (Urkizu, 11 solairuarean).

## EGUAZTENA 21

### IKASTEN

- 09.11.** Mendi-ibilaldia: Mundaka-Busturia. Irteera ordua Estaziñotik (Ardantzatik, 09.13etan).

### MUSIKA ESKOLA

- 18.00.** J. B. Gisasola Musika Eskolako ikasturte amaierako kontzertua eta diplomak banatzea. Coliseoan.

### EIBARKO KANTUZALEAK

- 19.00.** Abesbatsaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

### DANBORRADA

- 19.00.** Entsegua (umeak).  
**20.00.** Helduak. Beistegi eraikinean (Amalur ohian).

## EGUENA 22

### IKASTEN

- 10.00.** "Musica. Periodo romantico", Marina Lertxundiren eskutik. Armeria Eskolan.


### ANTZERKIA

- 15.00.** "Erpurutxo" (Teatro Paraiso). Doan. Hezkuntza Esparruan.

### KALEETAN KANTUZ

- 19.30.** Abesbatsaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.





## erakusketak

### ✓ Maiatzaren 31ra arte

**33. ARGIZAIOLA LEHIAKETA.** Depor tabernan. **KLUB DEPORTIBOKO ARGAZKILARITZA TALDEAREN** argazki erakusketa. *El Ambigu eta Portalea tabernetan eta Untzagako jubilatuta etxean.*

**JOSE RAMON SAN JOSEREN** argazki erakusketa. *Topalekuan.*

**PORTFOLIO NATURAL** elkartekoen eta **ENRIC PAMIES** eta **GARCIA DE MARINAREN** argazki erakusketa. *Topalekuan.*

## lehiaketak

### ✓ Li (buru-hausgarriak)

Irakurzaletasuna sustatzeko lehiaketa, LH-ko 2. mailatik gorakoentzat. Liburutegian.

### ✓ IV. Maskota Lehiaketa

Uztailaren 5ean, 11.30etan. El Corte Inglesean, 3. solairuan.

### ✓ Made In Eibar dokumental lehiaketa

Lanak aurkeztea: irailaren 15etik urriaren 31ra arte, Pegoran. **Informazioa:** 943708437, www.eibar.net eta San Martin liburutegian.

## ikastaroak

✓ **Yoga. Noiz eta non:** maiatzetik ekainera, martitzen eta eguenetan (12.00-13.30 / 17.30-19.00). Irakaslea: Marta Irusta. Arrate Kultur Elkartean. Prezioa: hileko 35 euro (30 bazkideek).

✓ **Dantza Afrikarrak. Noiz eta non:** maiatzaren 22 eta 29an; ekainaren 5 eta 12an (eguenetan), 19.00-21.00. Irakaslea: Arantza Iglesias Arbizu. Arrate Kultur Elkartean. Prezioa: 45 euro (40 euro bazkideek).

**Izen-ematea:** Arrate Kultur Elkartean, astelehenetik eguenera (17.00-19.00); 943202299 telefonora deituta (mezua laga erantzungailuan); arratekultu@gmail.com helbidera deituta.

			9	7		4		
		5			4		2	6
7				8				
6	2					3	5	
		9				1		
	7	3					6	9
			4					7
3	4		2			5		
		2		5	9			

## SUDOKUA

4	2	8	5	6	3	9	7	1
1	7	3	8	9	2	4	5	6
9	6	5	7	4	1	8	2	3
8	9	6	2	3	7	1	4	5
7	1	4	6	5	9	2	3	8
5	3	2	1	8	4	6	9	7
3	4	7	9	1	6	5	8	2
2	5	1	4	7	8	3	6	9
6	8	9	3	2	5	7	1	4

AURREKOEN EMAITZA

## telefono jakingarriak

SOS deiak.....	112
Pegora.....	010
Udaletxea.....	943 70 84 00
Portalea.....	943 70 84 39
Udaltzaingoa.....	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa.....	943 82 01 10
KIUB.....	943 20 38 43
Epaitegia.....	943 03 34 00
Iberdrola.....	901 20 20 20
Naturgas.....	902 12 34 56
DYA Larrialdiak ..	943 46 46 22
Gurutze Gorria...	943 22 22 22
Mendaro osp.....	943 03 28 00
Anbulategia.....	943 03 25 00
Torrekoa.....	943 03 26 50
Errepideak.....	902 11 20 88
Ertzaintza.....	943 53 17 00
Eusko Tren.....	902 54 32 10
Pesa.....	902 10 12 10
Taxiak.....	943 20 30 71
.....	943 20 13 25
Alkohol.Anon. ....	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen ..	650 26 59 63

## autobus ordutegiak

**EIBAR-DONOSTIA.** Lanegunak: 07.00etatik 9.50etara ordu erdiro eta 09.50etatik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 20.55. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 13.30etara ordu, 15.00, 15.30etatik 20.30etara ordu eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.50etatik 20.30etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.

**EIBAR-BILBO.** Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu.

**EIBAR-GASTEIZ.** Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 08.45, 12.45, 16.45 eta 20.45. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

**EIBAR-IRUÑEA.** Lanegunak: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

**EIBAR-ARRATE.** Zapatuak: 14.00. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 15.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Jaisteko: ordu erdi geroago.

**EIBAR-ELGETA.** Lanegunak: 06.40, 08.40, 13.40, 15.40, 16.40, 18.40 eta 20.40. Zapatu eta jaiegunak: 08.40, 13.40, 15.40 eta 20.40. **ELGETA-EIBAR.** Jaisteko: 20 minutu geroago.

**EIBAR-MENDARO.** Lanegunak: 06.10 eta 07.05etatik 21.35etara 20 minutu eta 22.20. Zapatuak: 07.00etatik 22.00etara ordu eta 23.10. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu eta 22.15. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.15, 06.50etatik 21.10etara 20 minutu eta 22.05. Zapatuak: 06.45etatik 20.45etara ordu, 22.05 eta 22.45. Jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara eta 22.05.

**EIBAR-LOIU.** Egutegia: 05.50, 09.50, 13.50, 17.50 eta 21.50. **LOIU-EIBAR.** Egutegia: 07.15, 11.15, 15.15, 19.15 eta 23.15.

## tren ordutegiak

**EIBAR-DONOSTIA.** Egutegia: 08.15etatik 22.15etara ordu. Lanegunak: baita 06.15 eta 07.15. **DONOSTIA-EIBAR.** Egutegia: 07.47etatik 20.47etara ordu. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47. **EIBAR-BILBO.** Egutegia: 08.15etatik 22.15etara ordu, 10.36 eta 21.36. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egutegia: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

## 1. Etxebizitza

### 1.1. Salgai

– Pisua salgai Soraluzen. 2 logela, egongela, sukalde eta komunak. 60 m<sup>2</sup>. Beriztua. Argitsua eta kanpora begira. Bero-gailu urdina. 69.000 euro. Tel. 617-207672. 19.00etatik aurrera.

### 1.2. Errentan

– Pisua hartuko nuke alokairuan Eibar/El-goibar inguruan. Tel. 637-363778.  
– Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 632-569245.  
– Iggailua duen pisua hartuko nuke alokairuan Eibarko erdialdean. Luzarorako. Tel. 615-709177.  
– Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. 3 logela, egongela, sukalde eta komunarekin. Tel. 632-192408.  
– Pisua hartuko nuke errentan. 3 logela, egongela erta komunarekin. Tel. 632-192408.

## 3. Lokalak

### 3.2. Errentan

– Taberna txikia alogagai Urkin. Errenta eta fidantza merkea. Tel. 645-710439.  
– Lokala partekatuko nuke. Prezio onean. Tel. 620-608065.  
– Garaje itxia alogagai Txomon. Tel. 943-207156.

## 4. Lana

### 4.1. Lan bila

– Gizonezkoa eskaintzen da eraikuntzan lan egiteko (peoi edo ofizial), sukalde-laguntzaile jarduteko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-192408.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. 13.00etik 20.00era. Tel. 658-458061.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauzez ere. Tel. 674-342769.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 602-865726.  
– Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak edo gaixoak zaintzeko eta etxe garbiketarako egiteko. Tel. 617-571210.  
– Emakumea eskaintzen da sukalde-laguntzaile jarduteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 606-354982.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Externa. Tel. 654-281645.  
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-711387.  
– Emakumea eskaintzen da gauzez nagusiak zaintzeko. Tel. 677-860971.  
– Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 631-771590.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta tabernan jarduteko. Erreferentziak. Tel. 679-910991.  
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Esperientzia. Tel. 626-197217.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira:  
Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro.  
Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

– Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko, sukalde-laguntzaile jarduteko, igeltsero moduan eta baserrian lan egiteko. Gidatzeko baimenarekin. Tel. 688-302653 eta 631-470968.  
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 680-808125 eta 943-740655.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketara lanetarako. Orduka. Tel. 680-526228. Nury.  
– Gizonezkoa eskaintzen da altzariak garraiatzeko, garbiketarako egiteko, lorategian lan egiteko eta gidari moduan. Tel. 660-213652.  
– Gizonezkoa eskaintzen da igeltsero moduan, lorategian jarduteko, banaketarako egiteko eta gidari moduan. Tel. 679-857409.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta abar. Erreferentziak. Tel. 632-253170.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketara lanetarako. Tel. 669-311385.  
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Externa. Tel. 636-362251.  
– Mutila eskaintzen da igeltsero moduan, sukalde-laguntzaile jarduteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 630-564528.  
– Emakumea eskaintzen da garbiketara lan egiteko. Tel. 620-258708.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 632-395829.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketara lan egiteko. Tel. 695-144954.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Externa. Tel. 654-281645.  
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-711387.  
– Emakumea eskaintzen da gauzez nagusiak zaintzeko. Tel. 677-860971.  
– Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 631-771590.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta tabernan jarduteko. Erreferentziak. Tel. 679-910991.  
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Esperientzia. Tel. 626-197217.

– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Esperientzia. Tel. 632-030789.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko: etxeak, tabernak, pegorak. Tel. 634-771382.  
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta tabernan jarduteko. Tel. 631-282203.  
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta tabernan jarduteko. Tel. 636-419814.  
– Mutila eskaintzen da gizonezko nagusiak zaintzeko eta sukaldari-laguntzaile jarduteko. Tel. 631-506108.  
– Emakumea eskaintzen da goizez edozein motako garbiketara lan egiteko. Tel. 628-872295.  
– Pedagogia ikasketak amaitzen diharduen irakaslea eskaintzen da udan umeak zaintzeko. Tel. 677-591982. Igone.  
– Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 602-057896.  
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Asteburuetan barme. Tel. 633-244397.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, tabernan laguntzaile jarduteko... Tel. 686-420642.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 648-196651.  
– Emakume euskalduna eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 606-502567.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 606-354982.  
– Emakumea eskaintzen da soziedadek garbitzeko. Tel. 600-332954.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 617-966358.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 680-121252.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka eta baita oporetan ere. Tel. 638-338816.  
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia ospitalean. Orduka. Tel. 631-203287.  
– Mutila eskaintzen da sukaldari-laguntzaile jarduteko. Sei hilabeteko esperientzia. Tel. 631-548678.  
– Emakumea eskaintzen da fruitategian lan egiteko, nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 606-354982.

– Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 631-429711.  
– Emakumea eskaintzen da orduka nagusiak zaintzeko. Tel. 653-075865.  
– Emakumea eskaintzen da orduka nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 689-571882.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta kamarera jarduteko. Tel. 671-972733.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. Baita gauzez ere. Tel. 632-253170.  
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 608-147559.

### 4.2. Langile bila

– Ilepaintzaile ofiziala behar da Eibarko ileapaindegi batean. Tel. 943-207207.  
– Gaztea behar da asteburu eta jailetan tabernan lan egiteko. Bidali curriculum-a kamarerobila@gmail.com helbidera.

## 5. Irakaskuntza

### 5.1. Eskaerak

– Batxilergo 2. mailako Biologia eta Kimika irakasle partikularra behar da. Tel. 646-344937.

### 5.2. Eskaintzak

– Euskarazko klaseak ematen ditut: azterketetarako prestaketa, perfilak, EGA, ... Tel. 620-608065.

## 6. Denetarik

### 6.1. Salgai

– Bigarren eskuko bizikletarako remolkekarroa erosiko nuke, bi haur eramateko. Tel. 660-840246.  
– Mini-sehaska salgai, Micuna Smart markakoa. la erabil gabe. 150 euro. Tel. 669-947125.  
– Labea salgai, taberna, okindegi edo dendan erabiltzeko modukoa. Baita ostalaritzako altzari gehiago ere. Urte eta erdi erabiltzeko. Tel. 615-719288.  
– Gitarra espainiarra salgai. Raimundo markakoa. Tel. 658-715978.

### 6.2. Eman

– Neskaren baseritar jantzia oparitzen da. 14 tallakoa. Tel. 658-715978.

### 6.3. Galdu/Aurkitu

– Mugikorra galdu zen Akara tabernan hilaren 3an, zapatuan, gaueko 23.30etan. Aurkitu baduzu, deitu mesedez. Tel. 943-203312. Itziar.  
– Apirilaren 15ean Egogaineko (autobus geltokia) umeen parkean ahaztu egin genuen jolasteko bikien aukia (gorria eta zuria) eta bi panpin. Balio sentimental handia du umearentzat. Eskertuko da bueltatzea. Tel. 653-053630. Maider.


### 6.4. Bestelakoak

– Eibar FT-ko kamiseta erosiko nuke. 6 urterako neurrikoa. Deitu arratsaldez. Tel. 637-012625.



# MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA



Ate Irekien Jardunaldia

Maiatzak 24 • 11:00

## GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

### Eskaintza akademikoa

- Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak
- Automatizazioa eta Robotika Industrialia
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa
- Mekatronika Industrialia

[www.mondragon.edu/gmhz](http://www.mondragon.edu/gmhz)  
[gmhz.mgép@mondragon.edu](mailto:gmhz.mgép@mondragon.edu)  
943 73 97 65



# BAI

## ERABAKITZEKO ESKUBIDEARI

EMAN  
BOTOA

**ehbildu**  
herrikerabaki

Asteartea 20 Portalea Kultur Etxean

19:00etan **EKITALDI POLITIKOA**

Pello Urizar, Txente Rekondo eta Joseba Alvarezekin





**ESLABAN** eraikuntzen eraberritze proiektuetan espezializatutako enpresa da. Soluzio pertsonalizatuak kalitate gorenarekin eta zerbitzu bermerik handienarekin eskaintzen dizugu.

## ■ Igogailuen instalazioa eta eraberritzea, oztopo arkitektonikoen ezabatzea...

- Eraikuntzen eraberritze lanak: fatxada eta estalkien zaharberitzeak.
- Eraikinen efizientzia energetikoa hobetzeko eraberritze lanak.

**ESLABAN**en helburua, bezeroen behar zehatzei irtenbide egokiena ematea da, eta martxan jarritako eraberritze lan guztiak kalitate eta profesionaltasun maila handienarekin aurre egingo diogunaren bermea eskaintzea.

Otaola, 27 esk. eskuma. 3º ezkerre. • Apdo. 160  
20600 Eibar (Gipuzkoa)

Tel.: (+34) 943 820 407 • Fax: (+34) 943 820 724  
E-mail: [info@eslaban.com](mailto:info@eslaban.com)

[www.eslaban.com](http://www.eslaban.com)